



## Bertsulari Xapelketa

*Finala izan dadila  
hasiera*



Amets Arzallus  
eta Sustrai Colina



- **Dopina txirrindularitzan** Positiboaren atzean dagoen kontrol sarea
- **Muriel Casals**, Òmnium Cultural-eko presidentea: «Erakunde katalanen birkonkista egiten ari dira, deskatalanizazioa bultzatzen»
- **María Jesús Balbás**, ginekologoa: «Hilekoa jaistean 'gaixoa', menopausiarekin ere 'gaixoa'... gaixoak izatera kondenatuta gaude emakumeak»
- **Battitte Salaberri**, Hendaiaiko auzapeza: «Hegoaldetik datozen etxegileei kontrol zorrotzagoa ezarri diegu»

ASISKO

MATTIN IRIGOIEN

ADUR

# OKATXU

## hegal egiten



Okatxu arkumea jaio da Ipar Euskal Herriko arditegi batean. Ama eta beste axuriak, artzaina eta zakurrak, koiole amerikar euskalduna, mendizale bizkaitarrak... Mundua ezagutzen joango da pixkana-pixkana.

Elkarriketa bizi eta jostariak, hizkuntzaren aniztasuna lanabes: Xuka, Toka eta Noka, euskalki arteko jolasak, artzain-eleteria, erran zahar eta berri... Eta hori guzia abentura dinamiko eta irringarrian zehar.



KAMISETA + LIBURUA

# 22€


**argia**

 ESKAERAK: ☎ 943 37 15 45 | [denda@argia.com](mailto:denda@argia.com)



Azaleko argazkia:  
AXIER LOPEZ  
Azala: GARBINE  
UBEDA GOIKOETXEA

Jabetza: Komunikazio Biziagoa, S.A.L. Lehendakaria: Joxe Mari Irazusta. Zuzendaria: Xabier Letona. Zuzendariaren albokoa: Pello Zubiria. Astekariko erredakzio-burua: Estitxu Eizagirre. Asteko Gaia-Pertsonaia: Mikel Garcia. Iritziak: Mikel Asurmendi. Kultura: Gorka Bereziartua. Aisia: Unai Brea. Termometroa: Urko Apaolaza. Euskara: Onintza Irureta. Diseinua: Garbine Ubeda Goikoetxea. Interneteko erredakzio-burua: Lander Arbelaiz. Haria eta blogak: Jon Torner. Multimedia: Axier Lopez. Argazkilaria: Dani Blanco. Produktzioa: ANTZA, S.A.L.

Kudeaketa eta salmenta: Berdaitz Goia. Harpidetzak: Karlos Olasolo. Idazkaritza Teknikoa: Aloña Soraluze. Publizitatea: Idoia Arregi, Maite Arrieta, Ixabel Bereziartua. Administrazioa: Marijo Aiertza, Mari Karmen Loiarde. Harrera: Olatz Korta.

HELBIDEAK: Gipuzkoa: Industrialdea, 15. 20160 Lasarte-Oria. Tel: 943 371545. Faxak: 943 373403 (erredakzioa), 943 361048 (komertziala). Lapurdi, Nafarroa Beherea eta Zuberoa: Xalbardin baita. 64122 Urruña. Tel: 559 476000. Faxe: 559 476001. Nafarroa: Gazteluko Plaza 44, 3 eskulna. 31001 Iruñea. Tel: 948 222285. Bizkaia: 13. P.K. 48600 Sopela. POSTA ELEKTRONIKOA. Komertziala: komertzial@argia.com. Harpidetzak: harpidetza@argia.com. Erredakzioa: kazeta@argia.com. Interneten: www.argia.com. Lege gordailua: NA 80-1963. ISSN: 0213-909X. Batzorde parekidea: 72562 E. Inprimategia: Antza S.A.L. Informatika: Adur Software Productions. S.Koop. Elk. Urtebeteko harpidetza. Hego Euskal Herria: 138 euro. Ipar Euskal Herria: 168 euro. Espainia: 138 euro. Beste atzerriak: 173 euro. Airez: 271 euro. Komunikazio Biziagoa S.A.L. Ametzagaña Taldeko pertaidea da.



EUSKO JAURLARITZA  
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA  
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza  
diruz lagundua



GIPUZKOA  
zurekin, aurrera



gizarte  
kutxa  
zugandik zuguera



## Deabruaren abokatua

- **Katixa Agirre:** «Fetixismo apur bat behar dugul». SUSTRAI COLINA / 4

## Asteko gaia

- **Dopina txirridularitzan.** Amaierarik gabeko gupil zoroa. JON TORNER / 5

## Pertsonaia

- **María Jesús Balbás:** «Gaixoak sendatu behar dira, ez gaixotasunak». UXUE ALBERDI / 10

## Gaiak

- **ARGIaren 2011ko egutegia.** Pentsamendu txiki sakonak. GARBINE UBEDA GOIKOETXEA / 15

## Iritziak

- **Gora Pro Nobis** ASISKO URMENETA / 17
- **Ttakun (h)errenka** Ikusmugak sakabanatzen. J.L. PADRÓN / 18
- **Tortura eta hedabideak.** PAKO SUDUPE / 19
- **Hiruko txikian** Izarren argia. JOXEMARI OSTOLAZA / 19
- **Lidertogitk traiziora.** AINHOA LARRAÑAGA / 20
- **Txandan** Tortura. JOXERRA GARZIA / 20
- **Zirtak** Txakurtzaindia. ANGEL ERRO / 21
- **Bertso berriak** Nolako euskalduna zara? XABIER PAYA / 22

## Erdiko kaiera

- **Amets Arzallus eta Sustrai Colina.** Bigarren Xapelketan, eutsi. ESTITXU EIZAGIRRE / 23
- **DK Muralismo,** hiria koloreen bidez sendatzen. ÁLVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN / 27
- **Denbora-pasak** ANA ZAMBRANO, KIKE AMONARRIZ / 29
- **Liburuak** GEMA LASARTE / 30 • **Diskoak** IKER BARANDIARAN / 31
- **Ezpalak** JON TORNER / 32 • **Abarrak** MIKEL GARCIA / 33
- **Zientzia eta teknologia** JOXERRA AIZPURUA / 34
- **Landareak** JAKOBA ERREKONDO / 35
- **Denboraren makina** NAGORE IRAZUSTABARRENA / 36

## Termometroa

- **Battitte Salaberri:** «Bidasoako Partzuergoak ez du aski indar». MIKEL ASURMENDI / 37
- **Erretiro adina 67 urtera atzeratzeak,** zer ekarriko du? DANIEL UDALAITZ / 40
- **Muriel Casals, Kataluniako Òmnium Cultural-eko presidentea:** «Espizituki esan digute garen bezala ez dugula lekuri». ARITZ GALARRAGA / 42
- **Bero-beroan** JUAN MARI ARREGI, ONINTZA IRURETA AZKUNE, XABIER LETONA / 46
- **Net Hurbil** Kutsadura da eritasun moderno ia guztien ama. PELLO ZUBIRIA / 48

## Azkena

- **Bidea ibiliaren ibiliaz eginez.** IÑAKI ANTIGUEDAD / 50



## “Fetixismo apur bat behar dugu!”

Katixa Agirre | Doktorea

Habitat-etik atera arren ez zaio surik falta.

SUSTRAI COLINA

Argazkia: Iñigo Azkona

**Idazle eta unibertsitateko irakasle. Zure poroei prestigioa darie...**

Izenaren azpian “EHUko irakasle” agertzeak prestigioa ematen du? Klasera sartzean ikasleak zutitzen direla uste duzu? Idazle izatea bai, prestigiosoagoa da, baina jendeari ezezagun zaiolako.

**Ezezaguna?! Biztanleko zenbatek argitaratu duten kalkulatzeko nahi duzu, ala?**

Mundu guztian gertatzen da hori. Harrigarria da zenbat liburu eta autore berri agertzen diren astero. Idazlearen figura intelektual gurua desagertzen ari delako iruditzen zaigu idazle gehiagoko dagoela, baina nor dago soberan?

**Asko saltzen duena gutxiesten duena, agian?**

Esnobismo hutsez gehiengoaren gustukoa dena txartat jo daiteke, edo produktua errazkeria eta erraztasunaren artean kokatzeko errezeloa sortu, baina nik argi daukat, gehiago saltzeagatik ez dut ezer extra-literariorik egingo.

**Bai, bai, hobe duzu nobela bat idaztea, martxa honetan ipuina bihurtuko baita extra-literario.**

Ipuina nobelaren entrenamendurako bitartekoa dela dirudi, benetako literatura nobelan dagoela. Dena den, aitorpen bat: ahalegin txikiagoa suposatzen didalako defendatzen dut ipuina.

**Egia izango da, orduan, haur eta gazte literatura bigarren mailakotzat daukazuela!**

Baliteke jende batek zuloak betetzearren edo eskaparetean agertzearen egitea, baina ahale-

gin handiagoa suposatu dizun helduentzako lana famatzea, errazago egin duzun haurrentzako gutxiesten dela uste duzu?

**Kritikarekin arazo bat duzuela baizik ez dut uste.**

Kritikek ez naute hondoratzen ezta hodeietara eramaten ere. Poztea edo mintzea humanoa da, baina ez dut ulertzen idazle batzuk nola kexatzen diren publikoki kritika txar bat egin dietelako. Lotsagarria iruditzen zait, erridikulua.

**Hitz horiek entzunda Euskadi Sariari buruz hasiko zinela iruditu zait...**

Zer sari nahi dugu gure literatur sistemarako? Madrilen sariak noiz irabaziko zain gaude etxean ezagun egiteko? Zergatik egin behar diegu kasu haiei eta ez gure ingurukoiei?

**Galdera gehiegi blogari eta zutabegile erretiratu batek egiteko...**

Blogen aroa *bluff*-a izan da. Egun, Facebook-ek dena irentsi du. Zutabegintzan, aldiz, nire burua errepikatzen ari nintzen behin eta berriz. Zenbat ideia desberdin izan ditzaket nik horrenbeste idazteko?

**Lasai, ez larritu, Durangon liburuak sinatzen jarri eta gehiago salduko dira!**

Fetixismo apur bat behar dugu! Ilaran zain dagoena epe luzerako inbertsio bat egiten ari da, agian. Hemendik 40 urtera liburu hori garestiago saltzen badu, zer? ■

## Dopina txirrindularitzan

# Amaierarik gabeko gurpil zorua

Alberto Contadorren gernuan aurkitutako klenbuterolak zaplaztekoa eman dio jada nahikoa kolpatua zegoen txirrindularitzaren sinesgarritasunari. 1998az geroztik, dopinaren aurka borrokan ari diren erakundeek ez dute gainbehera geratzerik izan.

JON TORNER

FRANTZIAKO TOURRAREN aurtengo edizioan, 198 txirrindularien 664 odol eta gernu lagin analizatu zituzten antolatzaileek, hiru analisi buruko, gutxi gorabehera; etapa irabazle eta talde-buruei gehiago. Jerga ofizialean esaten den moduan, “kontrako analisi” bakarra atzean zuten. Salbuespen susmagarri hori, ordea, Alberto Contador da, denboraldiko

lasterketarik entzutetsuena hirugarrenez irabazi duen txirrindulari espainiarra. Ziklismoari geratzen zitzaion sinesgarritasun apurra berriro zartatua, hamaikagarrenez.

Pasa den irailean, TVE telebista kateak kazetari bat bidali zuen Espainiako Itzulira, hiru astez dopinaren inguruko albisteei arrastoa jarraitzeko. “Noraino helduko gara?”.



Alberto Contadorren gernua UCI eta Dopinaren Aurkako Nazioarteko Agentzia ari dira aztertzen. Eurek esango dute aurkitutako substantziak nahikoa froga diren prozesu zigortzailea abiatzeko.



**1998an, Festina auzian inplikatu zituzten Richard Virenque txirrindularia, Willy Voet masajista eta Bruno Rousell zuzendaria (goiko irudian). Ezkerrean, Tom Simpson ziklista ingelesa bihotzekoak jota hil zen lekua. 1967an hil zen, Frantziako Mont Ventoux mendian gora. Hiru anfetamina poto aurkitu zituzten bere maillotean. Hurrengo orrian, Manolo Saiz ONCEko zuzendaria, 2006ko Puerto Operazio entzutetsuan nahastutako pertsonetako bat.**

Bere izena ezkutuan gorde nahi duen nazioarteko epaile eta lasterketa antolatzailearen galdera nori zuzendurik dagoen badakigu. “Ez duzu uste komunikabideek zeresan handia dutela? Kirol emaitzak ia aipatu ere ez, eta dopin kasuak lau haizetara zabaltzeko prest daude beti”. Bere izena ez jartzeko eskatu badigu, ez da izan ziklismoaren zutabeak darraziko dituen sekretu mingarriak kontutuko dizkigulako, “nazkaturik” dagoelako baizik: “Ez dut nire izena dopin hitzaren alboan ikusi nahi, asper-asper eginda nago”. Ez gara sobera tematu, ez baita gure asmoa bazterrar

nahastea, txirrindularitza dagoen egoerara nola heldu den jakiteko zertzelada batzuk ematea baizik, dopinak zipriztindutako albisteetako siglen atzean zein erakunde dauden azaltzea, egiaztatzerik ez ditugun datu eta hipotesiak, zurrumurru eta frogatu gabeko akusazioak errepide bazterrean utziaz. Xabier Usabiaga ETBko kazetariak azaldu digun moduan, sarearen egitura ulertzea ez da guk uste genuen bezain zaila.

### Klenbuterola (2010)

Alberto Contadorren auziak bolo-bolo zabaldu du animaliak elikatzeko erabil daitekeen anabolizatzailearen izena —Europar debekaturik dagoena—. Frantziako Tourreko bigarren atsedean egunean, pasa den uztailaren 21ean, Contadorri txiza-analisiak egin zizkioten, ohiko bilakatu diren dopinaren aurkako kontrolerako batean. Bi substantzia susmagarri zeuden haren gernuan: 5 pikogramo (0,000000000005 gramo) klenbuterol eta diftalatoa, odola gordetzeko plastikozko zorrotek daukaten substantzia ez-debekatua. Poltsa horiek, ordea, legez kanpoko odol autotransfusioetan erabili ohi dira.

Contadorren gernua Nazioarteko Txirrindularitza Batasuneko (UCI) eta Dopinaren Aurkako Nazioarteko Agentziako (WADA-AMA) zientzialariak ari dira aztertzen. Euren esango dute aurkitutako substantziak prozesu zigortzailea abiatzeko nahikoa frogaren ala ez. Erantzuna baiezkota bada, Espainiako Txirrindularitza Federazioak (RFEC) zigortuko du Contador, egoki ikusten badu behintzat. Dena den, federazioak hartutako erabakiare-



kin bat ez badatoz, AMAk, UCik eta Contadorrek berak Kirola Epaitzeko Auzitegira (TAS-CAS) jo ahal izango dute (ikus hurrengo orriko koadroa). Erreportaje hau ixteko unean, nobedaderik ez zegoen oraindik.

### Festina auzia (1998)

Hamabi urte egin behar ditugu atzera, 1998ra, dopinaren aurkako gaur egungo gurutzadaren abiapuntua markatu zuten gertaerak ezagutzeko.

Tourra hasteko egun bat besterik ez zen falta. Frantzia eta Belgika arteko mugan, antza *txi-bataxo* bat medio, poliziek Willy Woet Festina taldeko masajista geratu zuten. Autoan 200 EPO anpulu zera-matzen, hazteko hormonak eta dozenaka testosterona kaxa. Artean, oraindik antzeman ezinezko produktua zen EPO edo eritropoyetina izeneko substantzia: odolean globulu gorriak artifizialki sortzen ditu, haren oxigenazioa hobetu eta errendimendu eta erreku-perazioa hobekitzeko. Galdeketa, Woet-

**Pasaporte Biologikoa 2008an jarri zuten abian UCik: txirrindulariei analisiak egiten zaizkie, euren grafikoetan azal daitezkeen balore aldaketa handiak kontrolatzeko**

ek Festina taldeko goi-karguak nahasi zituen aferan. Bruno Rousell kirol zuzendariak bere taldeko ziklistak dopatu egiten zirela aitortu zuen, eta Tourrak lasterketatik kanpo laga zituen. Poliziek galdekatu zituztenen, ia denek berretsi zuten zuzendariaren bertsioa.

Galdekatu soilik ez. Jendarmeez hainbat txirrindulari, mediku, masajista eta zuzendari atxilotu zituen, autobus eta hotelak miatu, euren mugimendu oro zelatu... eta ez bakarrik Festinako-enak. Hariari tiraka hasi eta beste talde batzuetako kideak ere lokaztuta zeudela deskubritu zuten.

Protesta moduan, jendarmeen jazarpen itogarri eta gehiegizko disuasio-neurriek bultzatuta, Tourra lehiatzen ari ziren talde espainiar guztiek (ONCE, Banesto, Kelme eta Vitalicio) eta Riso Scotti eta Saeco italiarrek lasterketa utzi zuten, antolatzaile, epaile, taldeetako zuzendari eta txirrindularien arteko eztabaida antzuen ondoren. Txirrindularien bozeramailea Bjarne Riis zen,

lagunekin euskaraz

interneten ere bai!

gure artean euskaraz

mobiletik euskaraz

Noranahi zoazela. Nonahi zaudela. Zure jendearekin. Zure iritzia adierazi nahi duzunean, zeure erara. Euskara zure bizimoduaren osagaia da. Berezkora duzu. Zu eta zure lagunen artean, zure giroan, **gozatu euskaraz**.

**BFA DFB**  
Bizkaiko Foru Aldundia  
Diputación Foral de Bizkaia

Contador fitxatu berri duen taldeko (Saxo Bank) zuzendaria. Danimarkarrak ez zuen protestekin bat egin, baina duela hiru urte, 1993tik 1998ra bitartean dopatu egin zela aitortu zuen. Bestalde, Espainiako taldeak lasterketa uzteko konbentzitu zituen Manolo Saiz ONCEko zuzendaria izan zen, 2006ko Puerto Operazioan nahastutako pertsonetako bat.

1998an gertatutakoak EPO-aren eta oro har dopinaren aurkako kontrol zorrotzagoen beharra jarri zuen agerian, eta horri erantzuteko sortu zen urtebete geroago Dopinaren aurkako Nazioarteko Agentzia (WADA-AMA). Bada gehiago, ordea. Elkarrizketatu dugun lasterketa antolatzaileak esan digun moduan, Festina auziak txirrindularien artean oraindik suma daitekeen batasun eza azaleratu zuen: “Borroka 1998an galdu zuten ziklistek”. Orduz geroztik, burua altxatzeko imintzioa egin duen bakoitzean, txirrindularitzak eskandalo baten kokotekoa jaso du. Sonatuen, ziurrenik, Puerto Operazioa izan da.

### **Puerto Operazioa (2006-)**

2006ko maiatzaren 22an, Guardia Zibilak Manolo Saiz atxilotu zuen Madrilén, kafetegit batetik ateratzean. Atzeman zutenean,

**Filosofia kontua da. Erori izan dira futbolariak zelai erdian, bihotzekoak jota, eta inork ez du galderarik egiten. Zer pasako litzateke ziklistak balira?**

ONCEren lekukoa hartu zuen Liberty Seguros taldeko arduradun nagusiak 60.000 euro zeramatzan maletatxo batean, eta debekatutako substantzia betetako poltsa isotermiko bat. Hurrengo egunean askatu zuten, bai bera, bai agindupean zituen txirrindularietako batzuk Eufemiano Fuentes medikuaren bezeroak zirela aitortu ostean. Hainbat diziplinatako dozenaka kirolari daude dopin sare erraldoi horretan inplikaturik. “Daude” diogu, operazioa itxi gabe dagoelako oraindik.

Horietako batzuk, nahiz eta kalteak pairatu, errudun deklaratu gabe erretiratu dira. Unai eta Aitor Osa eta Joseba Beloki txirrindulariak, adibidez, Fuentesen sareko bezero gisa identifikatu zituen Guardia Zibilak, baina Espainiako Justiziak ez zituen zigortu: Antonio Serrano epaileak osasun publikoaren aurkako ustezko delitu batean zentratu zuen ikerketa. Dopinaren azpijokoa ez zuen ikertu, 2006ko azarora arte ez zelako delitu Espainian. Osasun publikoaren aurkako delituri ez zegoela ebatzita, kasua artxibatu eta inputatuak absolbitu zituen; auzia ahozko epailetaren zain geratu zen. Txirrindulariek normaltasunez lehiatzen jarrai zezaketen, inolako delitu penaletan inputaturik ez egoteaz gain, epaileak uko egin

## **Contador auzia. Erakunde bakoitzaren egitekoa**

Organo gorena TAS da, eta haren azpian daude gainerako guztiak, UCI eta AMA batetik, eta herrialde bakoitzeko erakundeak bestetik: federazioak, komite olinpikoak... Kirola Epaitzeko Auzitegia (TAS): Contador ez du organo judizial batek epaituko. Kirol munduko ika-mikak, bide penaletik doazenak salbu, justizia arruntetik at geratzen dira. Bide propio horretan, kirol diziplina edozein izanik ere, mailarik altuenean TAS dago. Nazioz gaindiko erakunde autonomo eta independentea da.

- Nazioarteko Txirrindularitza Batasuna (UCI): Hark jakinarazi dizkio Contadorri Tourrean egindako analisien emaitzak. Espediente zigortzailea irekitzea dagokio, Espainiako Txirrindularitza Federazioaren (RFEC) esku uzteko.

- Dopinaren Aurkako Nazioarteko Agentzia (WADA-AMA): Fundazio independente gisa sortua, edozein prozesu zigortzailek Dopinaren aurkako Nazioarteko Kodea betetzen duela bermatu behar du. Nazioarteko Batzorde Olinpikoak (COI) eta hainbat gobernu finantzatzen dute AMA. Contador auzia nahasi egin da, beste arrazoi batzuen artean, UCI eta AMAREN arteko tentsioengatik. Txirrindulari batzuen “lagun” izatea leporatu dio maiz AMAk UCIri, “positiboak ezkutatzea”



**Argazkian, dopina atzemateko gerru analisiak.**

eta “profesionalki” ez jokatzeara.

- Espainiako Txirrindularitza Federazioa (RFEC): Espainiako Estatuko txirrindulariak zigortu ditzakeen aurreneko instantzia da, nahiz eta haren erabakia beste instantzia batzuetan (TASen, adibidez) errekurritu ahal izango duten, egoki ikusiz gero, UCIk, AMAk eta Contadorrek berak.

## Dopinaren Aurkako Euskal Agentzia

Duela urtebete, Euskadiko Justizia Auzitegi Gorenak ebatzi zuen Eusko Jaurlaritzak ez duela eskumenik kirolari federatuei (profesional zein afizionatuei) dopinaren aurkako kontrolak egiteko, ezta positibo ematen dutenak zigortzeko ere: Kirola Jaurlaritzari dagokion saila da, baina diziplina-neurriak kirol federazioen jurisdikzioak dira. Justizia Auzitegiaren erabakia “gainditzeko”, Jaurlaritzak dopinaren aurkako programa bat adostu du kirol

federazioekin. Proposamenak aurrera egiten badu, administrazio publikoak kontrolak finantzatzeko ditu (bakoitzak 300 euro inguru balio du), eta zigorrek kirol-erakundeek ezarriko dituzte. Blanca Urgell Kultura sailburuak –Kirol Saila haren menpe dago– adierazi du lege proiektua legegintzaldia amaitu aurretik onartzea dutela helburu. Dopinaren Aurkako Euskal Agentziaren enbrioi gisa definitu dute egitasmoa.

ziolako bere menpe zituen frogak (odol poltsak, dokumentuak, audio eta bideo grabazioak...) AMA eta UCIri bidaltzeari. Kaltea egina zegoen ordurako: Liberty desagertuta eta euren izena zikindurik, talde hartako ziklista askok ez zuen eskaintza berririk jaso.

### Pasaporte Biologikoa (2008)

Pasaporte Biologikoa 2008an jarri zuen abian UCIk: tartean-tartean, txirrindulariei odol eta gernu analisiak egiten zaizkie, euren grafikoe-tan azal daitezkeen balore aldaketa handiak kontrolatzeko. Kontrol mekanismo bat da, ez ditu positiboak –froga zehatzak– azaleratzen, debekatutako substantziak hartu izanaren susmoak baizik. Xabier Usabiagak adibide batekin azaldu digu: “Demagun autoan zozela, Zumaia pare horretan Donostiarantz. Zumaia radarrek ez zaituzte gehiegizko abiaduran harrapatu, baina Donostiara oso azkar heldu zara; tartean errezeloak piztu dituen zerbait egin duzu”. Ziklista susmagarriak, behin-behineko neurri moduan, hama-bost egunerako gaitasungabetzen dituzte, denbora horretan kasua ikertu eta ondorioak ateratzeko. Pasaporte biologikoak salatu zituen aurreneko txirrindularietako bi Igor Astarloa ermuarra eta Pietro Caucchioli italiarra izan ziren, 2009an. Astarloa “susmagarri” bezala erretiratu da aurten, UCIk ez baitu konfirmatu dopatu izana. Caucchiolik, bestalde, TASen inpugnatuko du pasaporte biologikoa. Iazko ekainean, bi urterako zigortu zuen Italiako Komite Olinpikoak (CONI), UCIk igorritako emaitzetan oinarrituta. Zigorrarekin ados ez, eta italiarrak TASera eramane du bere auzia. Haren erabakiak kolo-kan jar dezake duela bi urte eskas abiatutako pasaporte biologikoaren baliagarritasuna.

### Tom Simpson (1967)

Ziklismoaren eta dopinaren arteko lotura “betikoa” dela esan digu Usabiagak. “Tradizioa” hitza erabili du nazioarteko epaileak: “Tom Simpsonen heriotzaz geroztik egon da lotura hori”. Ziklista ingelesa 1967an hil zen Frantziako Mont Ventoux mendian gora.

### Amateurrak

**Iaz, EAEko milaka eta milaka kirolari federatuen artean, dopinaren aurkako 116 kontrol besterik ez zituen egin administrazio publikoak. Ordea, hizlari izan dugun epaile eta karrera antolatzaileak argi du afizionatuen lasterketetan, baina baita zikloturismotik hurbilago dauden probetan ere, dopina egon badagoela.**

Paraje isolatu hark dopinaren trama bere kru-deltasunean erakutsi zuen: tontorretik bi kilometrorra, Simpson balantzaka hasi eta ziplo erori zen, bihotz-gutxiegitasunak jota. Haren maillotean hiru anfetamina poto aurkitu zituzten, eta txirrindulari batzuek aitortu zuten etapa hasieran brandya edaten ikusi zutela.

Beste kiroletan hain lotura esturik zergatik ez dagoen galdetu diegu: “Filosofia kontua da. Erori izan dira futbolariak zelai erdian, bihotzekoak jota, eta inork ez du galderarik egiten. Zer pasako litzateke ziklistak balira?” erantzun digute biek. “Kontuz, nik ez dut esan futboleko dopina dagoenik!”, argitu digu Usabiagak. Txirrindularitzak esfortzu fisikoa-rekin lotura handia duela esan digu ETBko kazetariak, futbolak baino askoz ere handiagoa, eta dopin kasuek badutela harremanik horrekin. Dena den, ibilbide ikaragarri gogorra izango duen 2011ko Italiako Giroa aurkeztu berrian, Usabiagak dio dopina ez dagoela zuzenean lotuta zailtasunarekin: “Begira atletismoan, positibo kasu gehien 100 metroko lasterketan azaldu dira”. Bere hitzetan, “utopikoa” da honek guztiak konponbiderik baduela pentsatzea. Dopina “beti” egon dela dio, garai batean gaur egun baino askoz ere gehiago, “errazagoa zelako ezkutuan pasatzea”. Lehen ez ziren hainbeste kontrol egiten: talde osoari analisiak karrera bezperan, ezusteko kontrolak txirrindularien etxetan... Bat dator nazioarteko epailea: “Ziklismoan beste kiroletan baino askoz ere kontrol zorrotzagoak egiten dira”. Azaldu digu lasterketa gehienetan kontrolak UCIk egiten dituela, antolatzaile askorentzat “prozesu garestiegia delako”. Etsipenez agurtu gaitu: “Geroz eta ziklista gazte gutxiago daude. Jar zaitez gurasoen lekuan. Etengabe ikusten dituzte txirrindularitza dopinarekin nahasten duten albisteak. Kirol gogorra da, gainera. Nola animatuko dituzte seme-alabak ziklista izatera?”. Galdera airean geratu da, tropelak uxatzerik lortzen ez duen “susmagarriak” edo “gaizkileak” izeneko lainotzarra bezala: buru gainean beti, kazkabarra noiz bota, utopiaren ametsetik esnatzeko pronto. ■

# «Gaixoak sendatu behar dira, ez gaixotasunak»

Jakintsua da eta barea, zuhaitz zaharrak bezain.

UXUE ALBERDI

Argazkiak: Dani Blanco

Zure familian aurretik izan ziren emakumeei eskerrak emanez hasten duzu azken liburua, bereziki zure amari eta izeba Useri. Zer irakatsi zizuten?

Ez kexatzen, borrokatzen eta pozik bizitzen. Badirudi oso ikasgai txatxua dela, baina urteekin oinarritzkoa dela ohartu naiz. Zoriontasuna ez hau edo beste edukitzearen edo lortzearen ondorio, ez, zoriontasuna erabaki bat da, aukera bat. Norberak hautatzen du gertatua gertatu ondo egongo den eta zoriontsu izango den; ala gertatua gertatu gaizki egongo den eta zorigaiztokoa izango den. Daukazu alia falta zaizunari lotzen zatzaizkion, hor dago gakoa. Eskerrak ematen ere irakatsi zidaten familiako emakumeei: bada mirariz bizi garelako uste duenik. Nik bizitza miraria dela uste dut. Festa bat da. Aitak ere erakutsi zidan, hasieran pitokeria galanta iruditu zitzaidan arren, egiten dudana guztiaren oinarria dela ohartu naizen zerbait. Esaten zidan, “zuk zer uste duzu, Karls Marxek zioen bezala, munduko bereizketa nagusia aberats eta behartsuen artekoa dela?”, eta nik, “bai, jakina!”, erantzuten nion. Eta berak: “EZ! Zuri eta beltzen artekoa? EZ! Altu eta baxuen artekoa? EZ! Emakume eta gizonen artekoa?”, eta nik: “BAI!”, eta berak: “EZ! Politen eta itsusien artekoa? EZ!; zaharren eta gazteen artekoa? EZ!”. Esaten zidan bazegoela askoz ere egiazkoagoa eta sakonagoa zen bereizketa: “Munduko bereizketa nagusia kortxoak eta berunak. “Saiatu kortxo izaten”, esaten zidan, “eta saiatu kortxo inguratzen, ze berunek hondora eramango zaituzte, arrastaka, berunek ez dute urazalera irten nahi, eta haiekin eraman nahi zaituzte, hondora”.

Nola egin zenuen medikuntza ohikotik ez-ohikorako bidea?

Bidea erabat nahasia izan da, mendira zoazenean bezala, ez dut maparik izan, ibili egin naiz eta bat-batean gustatu zaizkidan paisaiak aurkitu ditut, eta erabaki dut orain hemendik,

gero handik... Oso dibertigarria izan da. Txinako medikuntza tradizionala, adibidez, Salamancan ezagutu nuen. Han ikasten ari nintzela Madril Txinako delegazioa iritsi zela jakin nuen, 72an, orduan ez zegoen enbaxadarik, uste dut kontsulatua zela, baina oraindik ez zeukaten egoitzarik eta txinatarrak Palace hotolean zeuden. Nik seme bat nuen orduan, eta umea hartuta azaldu nintzen han, txinatarren kontsulatuan, Txinako medikuntza tradizionala nola ikasi nezakeen galdezka. Erotuta nengoela pentsatuko zuten. Baina handik aste batzuetara, etxera ingelesez idatzitako liburuz beteriko kaxa bat iritsi zitzaidan. Txinako medikuntza tradizionalari buruzko materiala bidali zidaten etxera. Gorde eta egunen batean ekingo niola pentsatu nuen. Eta handik urte batzuetara ekin nion, ginekologo lanean nenbilela. Bilaketa horretan ari nintzen, formakuntza hau dibertsio gisa hartuz —nik Gizarte Segurantzaren lanpostua bainekuan eta ez bainekuan orratzez beteriko kontsulta irekitzeko asmorik— homeopatiak aurkitu ninduen. Eta hori pasio itsua izan zen.

## Nortasun agiria

María Jesús Balbás Madrilén jaio zen duela 61 urte eta Euskal Herrian bizi da 1976tik. Lizentziatua da medikuntzan eta kirurgian eta ginekologoa da. Irakasle izan da EHUKo Erizaintza Eskolan. Medikua homeopata da, medikuntza holistikoan eta genero ikuspegidun medikuntzan formazaila, medikuntza txinatarrean, eneagraman eta hainbat medikuntza ez-ohikotik aditua. Beste autore batzuekin batera *Hilando fino. Mujeres, un viaje en común* (Icaria) argitaratu zuen eta bere kabuz *Bueno chicas, esto se acabó. Una guía para desdramatizar la menopausia* (Ediciones B). Zarautzen du kontsulta.

María Jesús Balbás





### **Eta ikaslea irakasle bilakatu zen.**

Handik urte batzuetara. Beste kide batzuekin batera master bat sortu ahal izan genuen EHUko medikuntzako fakultatean, ikasleei guk izan ez genuena eskaini asmoz: homeopatiari buruzko irakaskuntza arautu eta unibertsitarioa. Zoragarria izan zen zikloa ixtea.

### **Eneagrama nola aurkitu zenuen?**

Gaixoen zaintzaren humanizazioari buruzko masterra antolatzen ari ginela Azpeitian ikastaro bat zegoela jakin genuen, eta liluratuta geratu ginen. Homeopatiarekin zerikusi handia zuen, zaurgarritasunaz eta ahulguneaz ari baitzen, eta azaltzen zuen nola hurbildu gaixoarengana, nola ekin, nola ulertu, nola jakin zer den izaten uzten ez diona, nola ulertu zeintzuk diren bere indarguneak eta ahulguneak eta, ondorioz, nola garatu baliabide terapeutikoen gida gaixoari eskaintzeko.

### **Zergatik erabaki zenuten gaixoen zaintzaren humanizazioari buruzko masterra antolatu beharra zegoela?**

Ohartu ginen ez-ohiko medikuntzarekin ere jendeak gaixotzen eta ospitalean hiltzen jarraitzen zuela. Beraz, zerbait aldatu behar genuen ospitaletan, zerbait profesionalen estiloan. Egia da masifikazioa arazo larria

dela, eta oztopo handia dela humanizaziorako. Zaila da gaixoenganako beste gertutasun bat planteatzea, baina iruditzen zitzaigun formazio hura ematea ez zegoela soberan. Pentsa guardian mediku egoiliar batek zenbat larritasun kudeatu behar dituen: gaixoaren larritasuna, senideena, bere larritasun propioa, bere gainetik dauken profesionalen presioa... Larritasunezko erloju-bonba bat da, eta neska-mutil horiei fakultatean ez diete irakatsi ez angustia zer den ez nola kudeatzen den. Ez euren ez beste inorena. Ezta minaz eta sufrimenduaz hitz egiten ere, ezta heriotzaz hitz egiten ere. Entzuten ere ez diete irakatsi. Sabelak haztatzen irakatsi diete, eta bihotz-taupadak eta murmurioak entzuten, baina minez dagoen izaki bati entzuten, sufritzen ari den pertsonari entzuten ez die inork irakatsi. Inork ez die irakatsi min horri abegi egiten, gaixoarekin batera putzura jaisten, ezta putzutik irteten ere. Ze gaixoari bere putzuraino lagundu behar zaio, baina ezin zara han geratu, zuk irten egin behar duzu, zu ez zaude gaixo eta gainera hurrengo gaixoa artatu behar duzu, eta gainera gero etxera joan behar duzu. Beraz, erabat garrantzitsuak diren gauza hauek ez dira ikasten unibertsitatean.

**Azken urteotan ez-ohiko medikuntzara gero eta jende gehiago ari da hurbiltzen.**

Gaur egun, Euskal Herriko biztanleen %60k noizbait botika homeopatikoren bat erabili du. Sorginkeria izatetik aukera serioa izatera igaro da. Baina bada arazo bat: erabiltzaileak aurreratu egin zaizkiola —beste behin ere— administrazioak eta sistemak eman dezaketinari eta, egia esan, hala izan behar du: datu horrek erabiltzaileak osasun eragile, subjektu bilakatzea erabaki duela adierazten du, bere sendatze-prozesuan parte izan nahi duela, eta ez modu pasiboan. Kontzientzia kolektiboaren esnatzea salatzen du erabiltzaileek sistemari aurrea hartzeak, jendea bere elikaduraz, bere sendatze prozesuaz arduratzeak. Erabiltzaile horiek ez dira objektu sendagarri, subjektu sendatzaile dira.

**Liburua zure belaunaldiko emakume guztiei ere eskaini diezu, haien errebelatzeak eta apurtzaile izateko ausardiagatik. Zertan izan zineten apurtzaile?**

Zertan ez? “Neskek negar egiten dute eta ez dira zikintzen” zen gure belaunaldiko leloa. Gure belaunaldikoongandik “ama txikiak” izatea espero zen umetan, eta gero gizon garrantzitsu eta interesgarri baten aldamenean egongo ginela. Beraz, esan dezagun lizentzia asko hartu ditugula hori dena haizea hartzera bidaltzeko. Ikasle garaian behin eta berriro entzuten genuen: “Baina zertarako ikasiko duzu? Gero dena utzi beharko duzu-eta senarrarekin eta haurrekin egoteko!”. Zifrek euren kabuz hitz egiten dute: 1.400 ikasle ginen lehenengo mailan. 16 emakume. Neska guztiak trajea jantzita, galtzerdiekin eta zapatekin joaten ziren unibertsitatera. Ni galtza bakeroak soinean

## Ginekologia eta emozioa

“Ezinezkoa da ginekologia eta emozioa bereiztea. Gorputzarimen, gorputzaren eta buruaren arteko bereizketa gezurra da, bat gara, oso bat gara: gorputz bat gara. Beraz, nola uztartzen diren ginekologia eta emozioak? Anginak eta emozioak, lumbagoa eta emozioak, asma eta emozioak edo kailuak eta emozioak uztartzen diren bezala. Gezurra da gaixotasun batzuk psikosomatikoak direla, ezin gara bitan zatitu, gaixotasun guztiak dira psikosomatikoak. Bat gara! Beldurgarria da hain gauza oinarritzkoa nola ahaztu dugun. Kontua da, superespezializazioaren ondorioz bat hori milaka zatitan bereizi, banatu eta zatitu dugula eta, gaur egun, gaixoak sendatu beharrean gaixotasunak sendatzen direla. Eta gaixotasun bakoitzak tratamendu bat du, Hipokratesen garaitik Hahnmann-en garairaino kontrakoa esaten zen arren: “Gaixotasuna eraso patogenoaren aurrean norbanako bakoitzak egiten duen egokitzapena da”. Gaixoei eskaini behar zaizkie tratamenduak, ez gaixotasune, baina horretarako gizakia osotasunean aztertu eta sendatu behar genuke”.

agertu nintzen behin, eta katedratiko batek etxera joan eta arropa aldatzeko esan zidan. Eta itzultzeko jaunak agindu bezala jantzita. Eta eskola batetik ere kaleratu ninduten. Ordurako ama nintzen, eta haurrari titia ematen nionez, erditze-klaseetara haurrarekin joan eta bularra emateko ausardia izan nuen. Praktiketatik bota ninduten. Erditze-praktiketarik. Eta esan zidaten: “Bitatik bat: edo ikasi egiten duzu edo ama zara”. Eta semeari bularra ematea erabaki nuenean esan zidaten “Titia eman-go diozu behiek bezala?”. Nabarmen zeagatik edozer egiteko gauza nintzela esan zidaten, bazterrak nahastea zela niri gustatzen zitzaidana. Hori pediatriako katedradunak. Beraz, transgresioak? Denak. Badago etengabe gutxien gaituen agindua, izugarria da gutxien gaituen agindu hori: “Ez duzu ezer balio, polit hori”. Eta etengabe borrokatu behar izan dugu horren kontra, etengabe apurtuz, transgredituz. Denok gara apurtzaileak. Gu izatea erabaki dugun emakume guztiok.

**Menopausiari buruzko liburua emakumeen TAOko poema batekin irekitzen duzu eta dio, “Hitz egin!”. Gogorra izan da isiltasunaren aurkako borroka?**

Gogorra da oraindik. Isiltasuna da dagoen arma boteretsuenetakoa: isiltasuna inposatzen duenak badaki nolako indarra duen. Isiltasunetik baitator ikusezintasuna: izenik ez duena ez da. Eta emakumeok isilduak izan gara eta isilduak gara, behin eta berriro. Umetako shhhhhh hartatik hasita. Egia da arma hori gure alde ere erabil dezakegula, baina ez da erraza jakiten isiltasunak noiz babesten zaituen eta noiz ikusezin bihurtzen. Gaur egun ere neskatala batek lehen hilekoa duenean, amari kontatu eta “ez esan inori” esaten dio. Kontsultan bezeroei sexu-harremanei buruz galdetzen diedanean “ondo” erantzuten dute, eta gero isiltasuna. Menopausia ere isildu egiten da, urteak igaro ondoren galdetzen dio lagun batek besteari “eta zuk noiz pasa zenuen?”. Eta beti esango digute “gaixoa”. Neskatalak lehen hilekoa duenean “gaixoa” esaten diote ingurukoek, askotan ez hitzez, baina hori da neskatalari iristen zaion mezua. Hilekoa “rollo” bat dela. Eta diozu, hilekoa “rollo” bat bada, orduan, hilekoa joatea ona izango da, ez? Ba, ez! Menopausian, berriro ere “gaixoa” esango dizute. Ama bazara “gaixoa”, ezin baduzu izan “gaixoa”... “Gaixoak” izatera kondenatuta gaude, izaki osagabeak bagina bezala, ez nahikoak, beti zerbait falta behar zaigu: salbatu egin behar gaituzte, medikalizatu, kontsolatu... Ez gara bakarrik erditzeko gai, gure esnea ez da behar beste ona, hilekoa traba baino ez da... Gaizki eginak gaude!

Eta medikatuz konpontzen gaituzte...

Badakizu hilekoaren aurkako mugimenduak indarra hartzen ari direla, ezta? Hainbat eta hainbat neskailari, lehen hilekoa izan bezain laster pilula ematen diete hilekorik izan ez dezaten. Antisorgailu gehienek emakumea medikalizatzen dute, erditzeetan espezialista bakarria izatetik emagina, erizaina, obstetra, pediatra, anestesista, nenatologo... izatera igaro gara. Gero eta jende eta botika gehiago behar dugu, itxuraz, geu izaten jarraitzeko. Eta argi dago hori noren mesedetan den. Industria farmazeutikoaren eta sistemaren mesedetan. Eta sistema diodanean patriarkatua diot. Milaka urtek argi uzten dute jaiotzea gertakari naturala eta fisiologikoa dela. Eta emakumeok ahal dugula. Laguntzarekin bada, hobeto. Babesarekin, hobeto. Higienearekin bada, hobeto. Konpainiarekin, hobeto. Errespetuarekin, hobeto. Informazioarekin eta entrenamenduarekin bada, hobeto. Kontzientziarekin bada, askoz hobeto. Baina oroz gain: ahal dugu. Oraingo erditze eta seme-alabak hazteko ereduak infantilizatu, medikalizatu eta urrundu egiten ditu emakumeak, ez baititu kontuan hartzen emakume sexudun, pentsamendudun eta kontzientziadun gisa. "Paziente" bilakaten ditu, menpeko, esaneko.

**Formatzailea zara genero ikuspegia barneratuta duen medikuntzan, zertan eragiten digute ikasitako rolek gure osasunean?**

Esan dudan bezala, gaixotasuna eraso patogenoen aurrean norbanakoak egiten duen egokitzea da. Beraz, gaixok adina gaixotasun daude. Ikasitako rolen eta daramagun bizimoduaren arabera gure gorputza desberdin egokitzen da eraso patogenoaren aurrean. Esaterako, 50 urtetik aurrera kardiopatiak askoz ohikoagoak dira emakumeengan gizonengan baino, baina azterketak gizonaei egiten zaizkie. Askotan esaten da, emakumeak gehiago kexatzen direla, mainatiagoak direla, baina bat: mainatia izatea ere ikasitako rola da, sistemari mesede egiten diona, berriro ere kontsolatu, salbatu eta medikalizatu egin behar gaituztelako, eta bi: medikuarengana joaten diren emakume askok deskribaturiko sintomak ez dira aintzat hartzen, ez dira

## AZKEN HITZA

### Arranoa eta menopausia

"Diote arranoek 70 urteko bizi-esperantza izan dezaketela, baina 40 urte betetakoan erabaki bat hartu behar izaten dute: luma zaharrak pisutsuegiak zaizkie, eta moko eta atzaparrak ahulegi izaten dituzte ehizatzen jarraitzeko. Bi aukera ditu arranoak: hiltzea edo 150 egun irauten duen eraldaketa prozesuari aurre egitea. Bizitzen segitzeko duten aukera bakarra, amildegietako arrakaletan sartu eta hormaren kontra kolpeka beren buruari moko eraztea omen da. Gero, zain geratzen da moko berria hazi arte, eta orduan moko indarberrituarekin atzaparrak erazten ditu, eta zain geratzen da berriro, berriak hazi arte. Luma zaharrak erazteari ekiten dio orduan, eta bost hilabeteren buruan, indarberrituta eta biziberrituta ateratzen da amildegiko arrakalatik, beste 30 urteko bizitza aurretik. Horixe bera da menopausia".

garrantzitsutzat jotzen. "Estresa" esaten zaie, edo "nerbioak" edo "depresioa" edo "menopausiagatik da". Ez dira gaixotasun serioak, ez du ardura gaizki sentitzen badira. Beraz, bai, generoak, beste edozein jardueratan bezala dena baldintzatzen du medikuntzan ere: gaixotzeko modua, sendatzeko modua, gaixok artatzeko modua... Guk lortu genuen (eta guk diot hiru ginelako, izen-abizenekin) ginekologia ohiko osasun azterketen barruan sartzea. Orain urte batzuk azterketak bi urtean behin egingo zituztela erabaki zuten, gero hiru urtean behin, eta gaur goizean bertan jakin dut kendu egingo dituztela. Beraz, hemendik aurrera, ginekologoarengana joatea otorrinolaringologoarengana joatea bezala izango da. Atze-

rantz goaz, despistatu orduko jan digute lekua berriro.

**Zure azken liburua (*Tira, neskak, hau amaitu da*) menopausia desdramatizatzeko gida da. Zein da gizarteak menopausiaz duen irudia eta zein da zuk liburuan eskaintzen duzun ikuspuntua?**

Liburuan menopausia jubilazio pertsonalerako plana dela diot, eta ospatu egin behar dela. Menopausia behar-beharrezko funtzio fisiologikoa da, energia aurrezteko eta bizitzaren bigarren erdiari indarrez ekiteko. Menopausian seme-alabak hazita izaten ditugu normalean, gurasok zahartzen eta hiltzen, bilobak jaiotzen, gu jubilazioaren atarian... Momentu ona da bizitzaren balantzea egiteko, onak eta txarrak aztertzeke, eta armairua husteko. Gure buruaz haurdun egotea bezala da, berriro jaiotzeko. Menopausian bota egin behar ditugu behar ez ditugun gauza guztiak, amorru, haserre eta dependentzia zaharrak. Armairua hustu behar dugu berriro ere betetzeko, baina ezin dugu azal zaharren kargari eusten segi: lehenbiziko aldiz geu gara gure bizitzaren zentroa, gure zilborrari begiratzeko ordua da, energia aurrezteko momentua. Azalberritu eta amona jakintsu, adeitsu, dibertigarri eta bare bilakatzeko, lurreko alaba eta biloba guztiak magalean hartuko dituen. ■

**argia.com** Ez-ohiko medikuntzaz gogoeta gehiago gure webgunean.

• 2011ko egutegia •

# Pentsamendu txiki sakonak

Ez da formula berria. Iaz ere mota honetako egutegia plazaratu zuen ARGIAK. Istant batean irakurtzekoa izanagatik ere, zapore sendoa, sentsazio ederra uzten duelako errepikatu dugu moldea.

GARBINE UBEDA GOIKOETXEA

PENTSAMENDU TXIKIEN EGUTEGIA deitu diogu. Ez dira pentsamendutxoak. Txikitak ez du huskeriarekin zerikusirik. Txikiak dira motzean esandakoak direlako, baina sarritan, konpendio oso bat laburbiltzen dute, edo bizi oso bat, edo garai jakin bat, filosofia korrante bat, jarrera bat... Hitz gutxiko esaldian, indar handiko mailuak direlako hautatu ditugu.

Gehiago edo gutxiago, pertsonaia ezagunak dira denak, kultura orokorrekoak, mundukoak eta bertakoak, aspaldikoak eta gaur egungoak, ofizio eta jardun ugaritakoak: futbolariak, filosofoak, aktoreak, ekonomialariak, irakasleak, idazleak...

Ikuspuntu ausarta eskaintzen digute egunero –normalki goizero, ohiko irakurleek aipatu digutenez–, munduari beste norbaiten begiz erreparatzeko modu bat, ados egon edo ez, ingurua ulertzeko sistema bat.

Hemen ageri diren pertsonak jardun jakinari lotuta gogoratzen ditugu

denok: Albert Einstein fisikari, Coco Chanel modari edo goi mailako jostungintzari, Woody Allen zinemari, Agatha Christie misteriozko literaturari... Orriz orriko egutegian, nagusiki bizitzaz ari direla konturatuko zara. Esaldiaren bidez, pertsonaiari baino, pertsonari hurbilduko gatzazkio, beraz. Hona gogoeta gutxi batzuk, adibide gisa: “Izugarri tristea da: talentuak edertasunak baino gehiago irauten du” (Oscar Wilde, idazlea); “Zorionekoa bere buruari barre egitzen diona, sekula ez baitzaio dibertimendurik faltako” (Habib Bourguiba, Tunisiako politikaria); “Iragana tranpolin gisa erabili beharko genuke, eta ez besaulki bezala” (Harold MacMillan, politikaria); “Porrotak gauza on bat du, inoiz ez dela behin betikoa. Aldiz, garai-penak zerbait txarra du, sekula ez dela behin betikoa izango” (Jose Saramago, idazlea).

Eta aurrealdean, betikoa: santuak, izendegia, eguzkia eta ilargia, itsasgora eta itsasbera, Euskal Herri osoko jai egunak... ■





# Bazen behin...

Mahai-jolasa

## 4 ZAILTASUN MAILA

- Hasiberriak
- Jarraitzaileak
- Adituak
- Profesionalak



Galdera-erantzunak  
bost ataletan banatuta:

- Zirkulazio-aparatua
- Nerbio-sistema
- Digestio-aparatua
- Inmunitate-sistema
- Gaixotasunak

# bizitza

2.200 galdera giza gorputzari buruz



2.200 galdera giza gorputzari buruz

Bazen behin...  
bizitza  
Familiarekin modu kooperatiboan jolasteko

39€

Harpidedunentzat

35€

Eskaerak: 943 36 86 61  
info@luditoys.com

Ludi**toys**

www.luditoys.com

"Egin jolas giza gorputzari buruz  
beti jakin nahi izan duzuna ikasiz"

GORA PRO NOBIS

*Asisko Urmeneta*



## Ikusmugak sakabanatzen



hiru pertsonaren artean hitzekin txalapartan ibiltzea liluragarritzko zerbait da.

Ongi eman dezakegu

hirurok batera; tarteka hirukotetik atera poz handia adierazteko bikotekideari; atera eta sartzeaz lasaitu, eta beste bi *hitzalapartarien* hauts hegalarierderrei begira hartu atsegin. Urrutiratu egin zaitezke nahi duzunean, beste bi hitzalapartariei kalterik ez dakarkiola, orain bezala: William A. Douglass antropologoak eta Jon Bilbao irakasleak Ameriketako euskaldunen historia ondu zuten *Amerikanuak*. *Los vascos en el nuevo mundo* (1975) liburuan, zazpi ataletan: Euskal Herria; mertzenarioak, misiolariak, marinela eta merkataria; Hego Amerikako artzainak; Euskaldunak Kalifornia espainiarrean; Kalifornia Berriko lehenengo euskaldunak; Kaliforniatik hara; Etnikotasunaren iraupena euskal-amerikarretan. Hogeita hamabost urte geroago, Zinemira-Euskal Zinemaren Panorama sailaren barruan egin zen *Amerikanuak* euskaraz egindako proiektu independentearen estreinaldia, irailaren 18an, Donostian. Gorka Bilbao (Gernika, 1974) eta Nacho Reig (Teruel, 1969) dira zuzendariak, eta Berde Produzioak ekoizpenetxe txikiko Zigor Etxebarriak eta Jose Luis Barredok ekoitzi dute. *Amerikanuak* filmaren soinu banda Audience taldeak sortu du. Bosgarrena da Gernikako musika taldeak argitaratu dituen diskoen artean. Aurretik etorri ziren *Some Lovely Hands On Dry Skins* (2001), *Second Handed* (2002), *Trying Wings on Roots* (2007) eta *A shake in calm water* (2009). Liburua hor dago. Dokumentala hemen. Elko (Nevada) komunitateko euskaldunen historiak idazteko gogotan jaiotako proiektuak dira biak ala biak, eta munduko euskal diasporaren

CONCETTA PROBANZA



José Luis Padrón



Sarasola



Urkiza

zati horrek batzen ditu. Beste antzik ez dute liburuak eta dokumentalak, baina biak dira Amerikako Estatu Batuetako mendealdeko euskaldunen historiaren erro galduak gure argitara ekartzeko modu ederrak. Ez du nik idatzita-koak Beñatek eta Anak eman dituzten azken bi tta-

kunekin zerikusi handirik, ala bai. Hiru pertsonaren artean hitzekin txalapartan ibiltzea liluragarritzko zerbait da: hitzaren ertz finekin sartzen zara mundua den egurrezko lau pareren artean, eta mundutik kanpo agertu beste bien amodiozko jokoa argitu artean; egurrari burdinaren hotsa atera, eta ttakunak ezker-eskuin joz hirurok elkar berotu, zoriontsu. Gerturatu ere, berriro gerturatu egin zaitezke nahi duzunean, beste bi hitzalapartariei kalterik ez dakarkiola, orain bezala: *Ortzemugak Begietan* Ken 7 talde gernikararren disko berria da. Beñatek talde hori aipatu zuen kolpe garbi batez. Audience taldea ere gernikarra da sortzez. Egoitz Pomares produkzio lanetan aritu da Audiencek kaleratu duen azken musika-lanean, eta egun batzuk eman ditu Londresen. Egoitzek berak *Amerikanuak* dokumentala gomendatu zidan, ikusteko eta ikusteko eta entzuteko eta entzuteko. Eta hala egin genuen, ikusi eta entzun modu hunkigarrian, Principeko 9. aretoan geunden denak elkarri begiak emanda, Elkoko euskal artzainek desager-

tzear dagoen zeruertz bat nola osatu duten ikusiz eta entzunez, entzunez eta ikusiz musikaren hegazti-pausuak horizonte elurtuetan. Eta Anak “Ertz batean kokatzeak, mundua ez du mutur bakar egiten” egurrez idatziko zuela oraindik ez nekiela, txalo jotzen hasi nintzen filmaren amaieran, astiro, bakardadeak garaitutako ortzimugak bezala. ■



Hiru pertsonaren artean hitzekin txalapartan ibiltzea liluragarritzko zerbait da: hitzaren ertz finekin sartzen zara mundua den egurrezko lau pareren artean, eta mundutik kanpo agertu beste bien amodiozko jokoa argitu artean



Pako Sodupe

IDAZLEA

## Tortura eta hedabideak

**I**dazten ari naizen honetan, oihu ozenena egiteko gaitasuna duten hedabideek gai hau jarri dute jendaurreko plazan: sozialistak eta ezker abertzalea hitz egiten ari ote diren, hitz egite hori legez aurkakoa dela argi eta garbi adieraziz, edota, izan daitekeela iradokiz. Hitz egite soila amore ematea balitz bezala!

Hedagailu ozenenak dituzten horiek beroiek isilgailua jarri diote Portu eta Sarasolaren auziak erabat garbi agertu duen auzi bati: tratu txarren eta torturen egiazkotasunari. Onenean mezu hau zabaldu dute: bai, larria da, baina fiskalaren lan zuzenak argi uzten du zuzenbide estatuak funtzionatzen duela.

Sinesgarritasuna aitortzen diendan hedabideetara jorik, lehen egiaztatze axola handikoa: estatua- ren abokatuak bat egin du gezur zikinena fabrikatu duten guardia zibil, haien abokatu eta medikuekin.

Gipuzkoako fiskalburuaren lana ona izan da, eta, besteak beste, adierazpen hauek eskertzekoak: guardia zibilek emandako bertsioa gertagarria edo sinesgarria ez beste edozer izan daiteke; eraso etengabea, nahita egina, erabakigarria eta alde batekoa izan zen, hots, guardia zibilek Portu eta Sarasolari egina eta ez alderantziz; eta,



defentsak proposaturik epaiketan deklaratu zuten bi medikuak epaimahaiari argitasunak ematera etorri beharrean akusatuei laguntzera etorri ziren. David del Valle eta Lurdes Goenaga Donostiako Auzitegiko medikuek egindako txostenak, aldiz, dio bi atxilotuek gorputzean zituzten zauri nagusiak bateragarriak direla haiek atxilotetaz emandako bertsioarekin eta ez guardia zibilek emandakoarekin.

Basakeria honetan parte hartu zuten bost guardia zibilek ez dute zigor eskaerarik; basakerian parte hartu zuten beste sei guardia zibilentzat zigor irigarria eskatu da -10 egunez non dabilen jakinarazi beharra-, eta basakeriaren ardura nagusia dutenentzat, 2 urte eta 3 urteko kartzela eskaerak.

Estatuaren jarrera ikusirik, lau horiek zigortuak izaten badira, izan litekeen kartzelaldi onena izango dute, eta laster indultua jaso dezakete, eta aurrerago dominaren bat ere bai.

Eta Amaia Izko defentsaren abokatuak dioena bete gabe: inkomunikazioa kendu eta atxilotetak grabatu gabe jarraituko dute. Zerbait laburra esatearren: zuzenbide estatua izugarrian gaude; tratu txarrak eta torturak ametitzen ditu, hedabide indartsuenen laguntza gaiztoarekin. ■

Zuzenbide estatu izugarrian gaude;  
tratu txarrak eta torturak ametitzen  
ditu, hedabide indartsuenen  
laguntza gaiztoarekin

## HIRUKO TXIKIAN

Joxemari Ostolaza



Filma ikustera joan ginen. Zaleak gara, zinematik asebeteta gutxitan irteten garen horietakoak. Karteldegian genuen aukeratan, hau genuen ustez gustukoena, egokiena. Ez zigun huts egin. Euskaraz egin izanak ere izango zuen bere indarra gure erabakian, nekez izaten baita karteldegian aleren bat. Sala ilunean sartu ginen filma hasteko puntuan presaka. Aurre samar aurkitu genuen lekua, aretoaren erdia beteta zegoenaren seinale. Lehen minututik harrapatu gintuen filmaren gordinak, kartzelaren hotzen berri zekartzanak, herri honetan bere presentzia hain ohikoa denak, bukaeratik puska batera

### Izarren argia

abandonatu ez gintuenak. Ez da esfortzu nimiñoena egin behar, han deskribatzen direnak konpartitzeko eta bizitzeko. Agintarien eta beren morroien jukutriei eragindako minek minduta, musika izan nuen sendagai, bertako emakumeen egoera latzen eramangarri, musika sortzailea psikiatra bailitzan giza dramen putzu sakonen itogarrien jakitun. Filmaren bukaeran, azken hizkia joan bitartean argi ezak lagundu zigun arnasa gure onera ekartzen, isiltasunean inor ez zen mugitu filmak jarraitu izan balu bezala. Eta irtetea, nago, ikusleen arteko konplizitate ez aitortuak lagundu gintuen etxeraino. Balio izan zuen bidaia, Saturrararen ez daukagu urrun. ■

Ainhoa Larrañaga

HUHEZIKO ETA LANKIKO KIDEA

## Lidergotik traiziora

**E**z da ez inongo deskubrimendua hemen esan behar dudana. Hamaikatxo galdu ditu botere nahiak edo boterea eduki eta sortzen duen menpekotasunetik ezin askatu izanak.

Botere nahiak galdu ditu iraultzak, gertak, gobernuak, alderdi politikoak, sindikatuak, herri elkarteak... herriak.

Beti botere posizioan egon direnek, ederki dakite ahalmen guneetan kulunkatzen. Boterea dastatzearen poderioz eta urte askoren ondoren ikasi dute erabakiak hartzeko ariketa elegante egiten; “betidanik” eduki izanak, eskaintzen duen naturaltasunez.

Bada bigarren tribu bat; boterea lehen aldiz eta kuota txikitzen eskuratzen joan direnena. Hauek ezerezetik ekin diote malda igotzeari eta erabaki ahalmenak sentiarazten duen xarmaren gozamenak gehiago nahi izatera bultzatzen ditu.

Idea, helburu edo aldarrikapen sozial edo politikoen defendatzaile izatetik jaiotzen omen dira lider edo erreferente sozial eta politikoak. Borroka duinen aldeko diskurtsoa da oinarritik hasi eta erabakigune edo ahal-gunetara eramaten dituen. Behin boterea eskuetan, boterearen eskutan erortzen dira; batzuen zein besteen nahiak asetzeko bidean.



JUDITH FERNANDEZ

Boterera eraman dituen diskurtsoaren erradikaltasuna, fintzen edo lausotzen hasten da, testuingurura moldatzen. Ez da erraza gestioaren ardura (enpresa eta erakundearen kasuan) edo gobernuaren ardura daukagunean (alderdi politikoen kasuan), diskurtsoaren xarma eta lilura mantentzea.

Lortutakoa galtzeari beldur dietelako, boterera eraman dituenari uko egin edo iparrari eta helburuei tinko heldu. Horra askori sortzen zaien/zaigun ataka larria.

Botereari eusteko desirak galtzen ditu eskaera duinak ere, bai eta horrekin batera benetako liderrak ere.

Liderra da, errebindikazioari leial zaiona, edozeren gainetik hitzari eusten diona eta kargua galtzeko arriskua albora lagata boterera eraman duen kolektiboari behin eta berriz leial izaten zaiona.

Zorionez badira, norbere interesen gainetik ordezkatzeko dituzten pertsonen, ideien eta interesen duintasunez eusten dietenak. Euren jarduna agindu dutenarekin koherentzia mantendu dutenak eta erabakien norabidea galdu ez dutenak.

Zuen nahiaren eta interesen gainetik ordezkatzeko dituzuenena jarri duzuenoi, zorionak! ■

« Botereari eusteko desirak

galtzen ditu eskaera duinak ere,

bai eta horrekin batera

benetako liderrak ere »

TXANDAN

Joxerra Garzia



Tortura pankartan, alegia. Kalte larriak eragiten dizkio torturak torturatuari. Ilea gal dezake, edo kementa, edo arnasa (une baterako zein behin-betiko).

Ez dira horiek, ordea, torturak eragin ditzakeen kalterik larrienak, torturatuari eragiten dizkionak, agerikoak ez izanagatik ere, sakonagoak baitira askoz.

Baina kalterik handiena sistemari egiten dio torturak: torturarentzat ate, leiho edo zirrikituraren bat zabalik uzten duen sistemari, alegia. Kontrolpean dagoelako omen da estatuarena

### Tortura

onartzeko moduko bortxakeria bakarra. Tortura, ordea, kontrol guztietatik at dagoen izugarrikeria beltza da. Bere burua demokratikotzat jotzen duen estatu batek, dezakeen guztia eta gehiago egin beharko luke bere lurraldean torturatzen dela susmatzea ere ezinezkoa izan dadin.

Etsipengarria da ikustea torturaren aurkako manifestazioetara torturatuaren inguruko jendea bakarrik joaten dela. Demokrazia hitzarekin mozkortzen direnek behar lukete horrelako manifestazioen buruan, pankartari —eta, bide batez, koherentziari— eusten. ■

# ZIRTAK

Angel Erro

IDAZLEA

## Txakurtzaindia

**T**xakurra zain diezaiodan eskatzeko deitu dit arrebak, lanez lepo dabilako bulegoan eta, nik faborea egingo banio, eta argi dauka egingo diodala, egun osoan etxera jaitsi gabe egon nahiago lukeelako. Ez da zorutzen nauen eginkizuna, baina Arrosadia auzora abiatu naiz, txakurraren bila. Arrebarenean sartutakoan, modu pertsonalean hartzen dudana poz lokabe batez egiten dit animaliak harrera, nahiz eta, tarteka, nire atzera ere begiratzekoa egiten duen, ea Silvia, edo bestela bere mutikoa, heldu den nirekin batera.

Nire etxean dagoeneko, aspaldi handian ikusten ez dudana lagun bati deitu diot, ibai ondoan txakurdun paseo bukoliko bat, bakarka joanez gero asperraraziko nindukeena, proposatzeko –oso pertsona interesatua naiz.

Gero, haren ahotsa hariaraz bestaldean aditzearekin bat, oroitu naiz norbaitek esan zidala oso eroria ikusi zuela aurreko batean. Niri telefonoz ez zait hala iruditu.

Ibai ondoan txakurrarekin jolas egiten dugu, deitzen diot, jaurtikitzen dizkiot harriak, gero –agindu zehatza da– ez dizkiot marraskatzen utzi behar, baina, ekarri, ez dituenek harriak osteratzen, atzetik joan behar natzaio, korrika txikian, hortz artetik kentzeko, nahikoa irudi komikoa emanez, lagunak behintzat gogotik irri egiten dit, eta horrek, abailduta dagoela egia baldin bada, zertxobait kontsolatzen nau.

“Katea eten da”, esan dit halako batean lagunak. Ez diot ulertzen. Txakurraren uhalari begiratzen diot kezkatutik, apurtu ote den eta txakurra lotu gabe etxeratzearen beldurrez, balizko isunagatik ere bai, baina, batez ere, gutxi edo deus ez didanez obeditzen (zerekin lotuko dut?, besotan –30 bat kilo, kalkulatzen ditut iritzira– eraman beharko dut?), komeriagatik. Baina uhalak osorik dago; hasi naiz susmatzen laguna bere senargaiarekikoaz ari zaidala zerbait esan nahian.



JOSU SANTESTEBAN

“Harrigarria zait, zu euskalduna izanda eta, gainera, euskaraz (oso ongi, bide batez) idazten duzularik”, esan dit hitzez hitz, nire aldetik apaltasun (faltsu, bide batez) imintzioen aurrean, ‘txakurra euskaraz *hezi* ez izana’



irudia:

Antton Olariaga

“Katea eten duzu”, errepikatu dit, kargua harturik, “harrigarria zait, zu euskalduna izanda eta, gainera, euskaraz (oso ongi, bide batez) idazten duzularik”, esan dit hitzez hitz, nire aldetik apaltasun (faltsu, bide batez) imintzioen aurrean, “txakurra euskaraz *hezi* ez izana”. Hizkuntza hori, nire golkoan gogoratzen dut topikoa, haurrekin eta maskotekin, batzuetan eskusiboki, mintzatzen dena. Milaka urteko biziraupenaren sekretua, akaso. “Zergatik hitz egiten diozu Zakurneri erdaraz?”

Hutsean harrapatuta, ez dakidanez zer erantzun, noizbait euskaltzain, urgazle bada ere, izendatua izateko nire merituak arriskuan ikusita, “euskal hiztunen arautegi moral bat inprobisatu dut”, orain arte senez eta nahaspilan aplikatua, hemendik aurrera huts egin gabe begiratu beharko dudana:

Lehenengo araua: Beti erdaraz hitz egiten didaten (eta diedan) guraso euskaldunen seme-alabekin, edo gurasoen seme-alaben aurrean, hitzik ez egin euskaraz.

Bigarren araua: Entzungor egin guraso horiek (orain!) beren ondorengoen –apika posteritatearen– aurrean hizkuntzaz aldatzeko egiten duten ahaleginei.

Hirugarren araua: Ez tartekatu erdal jardunean euskarazko hitz gutxi gorabehera teknikoak (les mandé unas *ariketas*) edo toponimiakoak (¿vais a subir a *Iruña*?).

Laugarren araua: Erdaraz aritzeko usadioa ezarri den lagunartean, militanteki ez erabili euskara “euskal giroan” sartzean, Nafarroa Oinez-ean, esate batera, modu automatikoan ohi den bezala. Gauza bera, kanpoko (hots, Gipuzkoako) euskaldun benetako bat koadrilan egokitzen denean.

Bosgarren araua...

“Alegia, euskaldun normalak egiten duenaren kontrakoa”, lagunak etsipenezko auhen batez.

“*Sí, más o menos*”. ■

## BERTSO BERRIAK

Xabier Paga

### Nolako euskalduna zara?

Euskal Herrian zein erraza zen euskalduna izatea nahikoa baitzen “hemengoa naiz” lasai-lasai esatea. Euskal Herriatik kanpo, ordea, a zer-nolako nekea! Ea zuk nola azaltzen duzun zure identitatea.

INIGO AZKONA



#### I

Mapan agertzen ez baldin bada sortu zintuen herria nola adostu liteke, erraz, zein den zure jatorria?

- a) “Espainola naiz” esango diet era arbuia garrian; intsumisio nazionala onartzen da deserrian.
- b) “Euskalduna naiz” esango diet harrotasunez beteta, horrela beti bera izango da lehenengo elkarriketa.
- c) “Europarra naiz” esango diet Europan jaio nintzenez, egia guztiz ez dut esango baina gezurrik ere ez.

#### II

“Ez dakit zer den Euskal Herria” erantzuten dizun bati, nola azaldu nondik zatozen, begiak nola ireki?

- a) “Euskal Herria ezaguna da herri guztien gainetik, ez ote dituzu ezagutzen Guggenheim eta Athletic!”

#### b)

“Wikipedian bila ezazu etxera heldu ondoren, uste duzu nik banekiela Malasia non zegoen?”

#### c)

“Frantzia eta Espainiaren artean dago, gizona...”  
“Andorra da?”, “Ez, ez da Andorra”  
“A, orduan, Bartzelona?”

#### III

“Espainolaren dialekto bat ote da zuen hizkuntza?”  
Nola zuzendu hori dioen hotsaren ezezagutza?

#### a)

“Bereiz ditzazun hizkuntzak eta dialekto ustekoak: hizkuntzak dira ejertzitoak dauzkaten dialektoak.”

#### b)

“Gaztelania sortu zenean penintsularen erdian euskara modan jarri zen berriz, ehungarren aldiz, agian”.

#### c)

“Espainolaren dialektoa, gure hizkuntza? Bai zera! Zoaz antzarak ferratzera, ez zainzuriak frijitzera!”

Jendeak ez du ezer ikusten erakutsitik harago, eta gurea ez da handia, ez da Pekin, ez Chicago. Munduan ibil gintezkeen arren askoz ere lasaiago, gure kasuan enbaxadore ibili beharra dago.

**DOINUA:** “Axuri beltza”.



Bidali zure sortak [bertsoak@argia.com](mailto:bertsoak@argia.com) helbidera. Aukeratuak orri honetan argitaratuko ditugu.

# erdiko kaiera

Ametz Arzallus eta Sustrai Colina

## Bigarren Xapelketan, eutsi

Azaroaren 13an jokatu da XiLaBako Bertsulari Xapelketa. Aurreko xapeldunak eta xapeldunordeak bistan duten paisaia jorratu dute buruz buruko saioan.

ESTITXU EIZAGIRRE

AXIER LOPEZ



### Hasierako agurra

**Ametz Arzallus.** Nire intentzio bakarra da nire ideia eta momentuko sentimenduekin ahalik eta koherenteena den saioa egitea eta koherentzia hori ahalik zuzenena izan dadila teknikoki eta ahalik eta aberatsena hizkuntza aldetik.

**Sustrai Colina.** Finala plaza handitzat daukat, 1.500-2.000 lagunek plaza errespetuzko plaza da, motibatzen duen plus bat duena. Jende horren espektatibak betetzeko nahia sentitzen dut. Ongi dago jendea biltzea, gauzak zabal-tzea, saltzea... baina gero iristen da horri eran-

**Ametz Arzallus:** "(Iparraldeko bertsolaritzaren) muina ez da guk finalean transmitituko dugun irudi hori bezain indartsua, euskorra eta itxaropentsua".

tzuteko momentua. Eta finala da horietako bat. Ametsek esan bezala, bakoitza bere buruari begira jarri eta ahal bezain saio oso eta koherenteena egiten saiatzea dagokigu.

**A. Arzallus.** Hori, noski, ahantzi gabe intentzio kolektiboak, biak sentitzen baitituzu zure baitan, pertsonala eta kolektiboa. Iparraldeko bertsogintzarentzat 1.500 pertsonako plaza bat, nazio mailako plaza bat momentu historikotxo bat da. Euskal Herriari Iparraldeko bertsogintza zertan den erakusteko, eta geure buruari ahalik eta indar irudi positiboena



## Puntu erantzuna

### “Finalista bakoitza definitu ezazu”

#### Eneritz Zabaleta

**A. Arzallus.** “Xapelketa honetan bere maila, enpeina eta kezken mundua oso ongi lotu ditu”.

**S. Colina.** “Saiatzen denak lortu egiten du”.

#### Odei Barroso

**S. Colina.** “Egun hobea edo txarragoa izan, Odeik beti pauso bat aurrera. Kriterio propioak dituen pertsona”.

**A. Arzallus.** “Gaur egun, bere baitarik pentsatzen duen pertsona bat aurkitzen ez da hain erraza. Hemen bat”.

#### Miren Artetxe

**S. Colina.** “Berak ere ez daki bertsotan zenbat egin dezakeen. Konturatuko balitz zenbat dezakeen, bere burua ere harrituko luke”.

**A. Arzallus.** “Egunak gorabehera, bertsotarako erraztasun handiak erakutsi ditu beti”.

#### Ekhi Erramundegi

**S. Colina.** “Bere ingurukoen artean kezkatuena, ez da kasualitatea finalean egotea. Jendearengan atxikimendu bat gorde duena”.

**A. Arzallus.** “Behin lortzen duenak ez du kasualitatez lortzen eta bi aldiz lortzen duenak balio seguruak ditu”.

#### Joanes Etxebarria

**S. Colina.** “Artistaren semea ere artista atera da”.

**A. Arzallus.** “Arnasaldi eta ustekabeko sormen ilusio handia eragin duena”.

#### Xumai Murua

**A. Arzallus.** “Kantuak ilun badezaioke ere, bertso egile onenetakoa da taldean, oso xuxena”.

**S. Colina.** “Konstantzia. Bertsoa bizitzeko modu egokia bilatu du, bakean bizi da bertsoarekin eta bertsoa ere bakea berarekin: ezkontza zoriontsu bat”.

#### Amets Arzallus

**S. Colina.** “Iparraldeko xapelduna eta Euskal Herriko txapeldun ordea, bertsotan urte osoan maila onena ematen duenetako bat”.

**A. Arzallus.** “Amets Arzallus Antia Egiguren Gracia Zinkunegi Aramendi...”.

#### Sustrai Colina

**A. Arzallus.** “Gaitasun eta mami handiko pertsona, eta bere gaitasun horri bidea emateko bere buruarekin zorrotasun handia duen laguna”.

**S. Colina.** “Ez dut ezagutzen”.

transmititzeko plaza da. Baina zure bertsoa eta zure saioa zeuk bakarrik egin zenezake, beraz uste dut intentzio kolektibo horri aportatzeko modu bakarra, egun hartan zure intentzio pertsonaletan ahalik urrunen joatea dela.

#### Lau oinak: XiLaBa. Lau ezaugarri, errimatu beharrik gabe.

**S. Colina.** KOLOREA. Badauka Txapelketa honek besteek ez daukaten zerbait. Ikusten duzu Joanes Etxebarria bat, zubereraz ari dena, zer kontatua daukana, eta bere bertso-

ek eramaten naute orain arte beste inorenek eramane ez nauten terreno batzuetara. Hor dago Mixel Xalbador ere, BECen Egañari zaharra esaten zitzaion, eta Mixelek Andonik baino urte dezente gehiago dauzka. Kolore hori badago oholtzan.

**AURRERA.** Duela bi urteko Xapelketatik pauso bat eman da bai antolaketan, bai gaitan, bertsotan egiteko baldintzak hobek dira...

**JENDEA.** Publikoak ongi erantzun du, jende asko bildu da.

HELBURU KOLEKTIBOA. Xapelketa honetan parte hartzearen arrazoi nagusia zentzu kolektiboa da. Momentu honetan Iparraldeko bertsolaritzaren garapenean txapelketak funtzio inportantea bete dezake, eta hor kokatzen dut nire parte-hartzea.

**A. Arzallus.** Sustrairen lauei bi gehituko dizkiet: LURRALDE TASUNA. Final honen berezitasun oso pozgarria da. Duela bi urteko finalean zortzi bertsolariak lapurtarrak ginen, edo Lapurdin bizi ginenak behintzat, eta oraingoan zazpi izango gara lapurtarrak eta bat zuberotarra. Halako arnas bat da, kolore berri bat, eta Xapelketaren izenburua eraman bada bereziki Xiberu-Lapurdi-Baxenabar (XiLaBa) kontzeptua, Joanes Etxebarria etorri da lelo horri benetako zentzua ematera. Joanes izan da niretzat Xapelketa honetako ilusio injeziorik handiena.

**EUTSI.** Lehenbiziko txapelketa, alde batek begiratuta, errazena izaten da. Kazetarietzat ahobeteko hitzean datorrena, eta jendearen gogoetan ere bere lekua zuena. Lehenengorako erraza izaten da indarrak biltzen eta ingurua kutsatzen, jendea berritasun horren parte sentitzen delako. Baina bigarrenean jada komeriak izaten dira eta giza neurria fidelago erakusten du. Eusteko txapelketa da. Parte-hartzaile kopuruan zeozertxo gora egin da, baina badira aurreko txapelketatik falta direnak. Kalitateari eutsi egingo zaio la uste dut baina ez dugula jauzi handirik eman. Etorkizunera begira pentsatu egin behar dugu nola hobetu, jauzi kualitatibo bat emateko indarrak bildu behar ditugu, gure Xapelketari gorputz eta hezurdura gihartsuagoa emateko. Nahi nuke jendea finalera etortzea ez bakarrik hiru probintzietako finala delako eta pastoralaz eta Herri Urratsez gain beste zita bat jartzen duelako Iparraldera bidaiatzeko, baizik eta benetan saioak merezi duelako eta han gauden bertsolariok eskaintzen dugulako jendearen arratsaldea goxatzeko zerbait.

**Ofizioka: Bertsolaritza Iparraldean. Batek orain arte egindakoak dauzka gogoan, besteak oraindik egiteko dagoena.**

**S. Colina.** Lehen azertua berriz hasia izan da. Duela hamar urte zer zegoen ikusi eta orain zer dagoen ikuste hutsak erakusten du gorpila berriz martxan jartzea lortu dela eta herdoila kendu zaiola.

**A. Arzallus.** Lehen Xapelketak ilusio handia sortzen badu taldean, Iparraldeko Bertsolariek Elkartearen barruan, inguruan... bi urteko bidean ez da asko zabaldu indar hori inguruetara eta nahiko juxtuaren eusten ari da gure egitura zutik. Lurralde batzuetako jendea urrunxego ikusten dut zirkulu horietatik eta muina ez da guk finalean transmitituko dugun irudi hori bezain indartsua, euskorra eta itxaropentsua. Ez dut uste hasieran irudikatu genezakeen indar hartzerik ekarri duenik Xapelketak gure barruko muin eta antolakuntzari begira.

**S. Colina.** Une honetan Iparraldeko Bertsularien Lagunak Elkarteak jende interesgarriak osatzen du. Beti hor egon den belaunaldi bat dago, Jexux Arzallus, Kepa Murua... eta hurbildu den jende berriagoa ere bai. Nahiz kultur elkarteak beti diren ezegonkorrak, langile onak dauzkagu. Irakaskuntzarako fitxatu dituzten bi irakasleak gaituak ikusten ditut oso lan ona egiteko. Horrek lasaitzen nau, hemendik urte batzuetara askoz egoera hobea edukiko dugula espero dut.

**A. Arzallus.** Hizkuntzaren egoeraz ezkorra naiz, eta bertsoa horren menpeko da. Nahiko hari meharretik dago zintzilik gure hizkuntz komunitatearen iraupena. Ikusten dut aurreko belaunaldi bat bere borrokarako bulkadak kanalizatzen asmatu zuena: Sustrai eta ni jaio ginenean puri-purian zeuden Ikastolen Asmatze eta indartze fasea, borroka politikoa ere askoz nahasiago eta beroago bizi zen alde batzuetatik... belaunaldi hark asmatu zuen bere herri kontzientziaren bulkadatxo horiei neurriko erronkak aurkitzen. Eta uste dut gu garai tristeago edo ilunago batean iritsi garela,



# TOLOSA

Azaroaren 19tik 28ra, San Frantziskon

## EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi

irakurriz!

non aurreko borroken ondorioak egituratu xamarrek dauden eta oso zaila zaigun gure garairako neurriko erronkak aurkitzen. Noraezik gabeko garai batean gaude, estrategia argirik gabe, eta gure belaunaldiak lubaki batzuk falta ditu. Uste dut hizkuntzaren egoera zuzen zuzenean ari dela jasaten garai honen argitasu-



Argazkian, duela bi urteko Xapelketako finala. Sustrai Colinak hau desio dio aurtengoari: "Finala egun handia izango da. Baina biharamonean segi beharko da orain artean egindako lan horri beste estutu bat ematen. Finala hasiera izan dadila eta ez bukaera".

nik eza. Bertsotatik aparte da, baina bertsoa lur horretan oso txertatua ikusten dut, eta Xapelketaren jarraipena ere belaunaldi horrek hartu beharko luke beregain...

**S. Colina.** Nahiz Ametsekin bat natorren erabat, alde positibo bat bilatzen diot: zorionez, orain gauza asko behintzat gure esku daudela. Hurrengo urteetan etor daitezkeen aurrerapenak gure azertuen arabekoak izango dira. Horrek ardura eta zer pentsatua ematen du baina tresnak behintzat eskutan dauzkagu, ez gaude egoera tutelatu batean.

**A. Arzallus.** Berririo bertso mundura itzuliz, egun Sustrai eta ni gertatu gara Iparraldeko bertsogintzaren erreferentziatxo. Urtean saio dezente egiten ditugu eta konturatzen naiz gu sortu ginen eremuan 10etik 1ean kantatzen dugula. Eta beharbada hori da neurri normala, baina hori normala bada, badago beste anormalkeria bat: ez dudala duela lau urte baino saio gehiago egin azken bi urteetan Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Zuberoan. Xapelketari hasieran markatutako erronka handi haiek, plaza berrien eragile izatea, oraindik ere handi izaten jarraitzen dute.

### Kartzelako lana: Norbera eta Txapelketa. Noiz arte?

**S. Colina.** Ez dakit zenbat urtez jarraituko dudana. Txapelketaro aldatzen dira gauzak eta txapelketa oste guztiek kokatzen zaituzte parrillan beste toki batean. Euskal Herriko Txapelketa pasa berrian ireki zen honetarako izen-ematea eta iruditzen zitzaidan ez nintzela prest egongo, garai hartan nahiago nuen

edozer txapelketara joatea baino. Eta hemen nago. Mendi errusiarra da, lehen aipatutako zentzu kolektiboak asko tiratzen du, eta ezin da esan bi urte barru egongo naizen edo ez, ikusiko dugu zein den egoera eta gorputzak eta buruak zer eskatzen didaten. Eta sei urte barru berdin, eta hamarrera... eta iritsiko da momentu bat irudituko zaiguna Xapelketak ez duela gure beharrik. Normala irudituko zait orduan besteei lekua uztea. Baina oraindik oso posible iruditzen zait guk besteei tokia utzi baino lehen besteek gu botatzea: Ikusten dut atzetik badatorrela belaunaldi bat. Harrigarria dena da finala okupatu duen belaunaldia ez dela berriena, teoriarik indartsuen zetorrena. Orain 25 urteren bueltan dabilen belaunaldia da. Horien artean ikusten ditut saio bakarrera gu baino saio hobea egiteko gai diren bertsolariak. Nahiz eta nahiago nukeen denen aurretik geratzea, garbi dut horietakoren batek jantziko balu txapela ni izango nintzatekeela poztan lehenbizikoa. Seinale on eta sana litzateke.

**A. Arzallus.** Nahiago dut Xapelketara ateratzeko motibazio pertsonal-kolektibo honek zenbat iraungo duen gehiegi pentsatu gabe ibili, momentuan sentitzen dudana jarraitu. Gurekin oholza konpartituko duen talde horren baitan sentitzen dut ni joan edo ez Xapelketa aurrera ateratzeko indarra: ongi ikusten ditut. Jende kezkatua da, lehen esan dugun muin horretatik gertu dagoena. Batetik beren bertso mailak eta bestetik beren inplikazioak ilusio handia pizten didate. Lehen esan dudanez, besteak hurbilagoak baintuen lehenetik, ilusio berriena Joanek piztu dit, eta nire esperantza indar osoa du aurrera egin dezan Iparraldean eta Euskal Herrian, uste dut, askotxo esatea dirudien arren, Euskal Herriak behar duela holako ahots bat.

### Azken agurra.

**S. Colina.** Jendea beti finalekin geratzen da, ematen du finalean dena hasi eta bukatzen dela. Baina egun garrantzitsuagoa izango da azaroaren 15a 13a baino. Finala egun handia izango da, txapel bat jantziko da, espero dezagun saio ona ateratzea... Baina azaroaren 15ean segi beharko da orain artean egindako lan horri beste estutu bat ematen eta aurrera begira bidea egiten. Finala hasiera izan dadila eta ez bukaera.

**A. Arzallus.** Balio dezala euskararen eremua lur berrietarantz pixkanaka zabaltzeko, eta lur zaharra pixka bat jorratzeko, edo hori egiteko gai garela erakusteko. Askik kinka larrian ikusten baitut iparraldean hizkuntza komunitatearen biziraupena, eta egun batzuk behar ditugu gure burua pixka bat engainatzeko. ■

## Artea

# DK Muralismo, hiria koloreen bidez sendatzen

Askorentzat pentsatzea ere zaila den arren, Bilbo Zaharra eta San Frantzisko auzoek betidanik gorde izan dute Bilbo sortzailearen zati handi bat. Hiriko erdigunea eraiki zuten arkitekto berberak egin zituzten bertoko etxeak; han bizi izan dira musikariak, margolariak eta hainbat politikari. Testuinguru horretan eta auzoko sasoi latzei aurre eginez sortua da gune publikoak itxuraldatzen aitzindari den DK Muralismo enpresa.

ALVARO HILARIO PÉREZ DE SAN ROMÁN

SERGIO GARCIA, “Sei”, eta Jose Ramon Bañales, “Bada”, enpresako bazkideak egiten duten lanaz mintzo zaizkigu. Gogorarazi digutenez, mota askotakoak eta larriak ziren Bilbo Zaharrak eta San Frantziskok orain dela 30 urte pairatzen zituzten arazoak. Baina kemen handiz biztanleek eta Auzo Elkarteak egoerari buelta ematen jakin izan zuten. “Gure lana auzo honetan jaio zela esan daiteke. Degradazioa nagusi zen momentuan, Auzo Elkarteak bultzatutako hainbat ekimenetan bat egin genuen hemengo zenbait artistak. Urte haietan hasi ginen muralak egiten”, azaldu du Badak; “aurrerantz, hura guztia transbertsalitatez busti ahala, egoera salatzen ez ezik muralismoak gune degradatuak zaharberritzean bere lekua hartu zuen”. 1990 eta 1992 urteen artean, Paisaian Eragiteko Taldeak (EIP-PET) egitasmoaren barruan egin zituzten lehenengo lanak, Gorte kalean eta Naja moilan: “Hasieratik izan genuen kalean kolorea sartzeko asmoa baina errealitate soziala bistatik galdu gabe. Gure lana auzolanetik jaio zen”. Hasierako lan haietan iraupen luzeko langabetuek hartu zuten parte lehenik, eta 21 urtetik beherakoek, gero. “Garai haietako mural asko gure proposamenen esker Surbisak (Bilboko auzoak birgaitzeko udal enpresa) sustatu zuen lehiaketa baten eskutik egin ziren, langabetuak edota toxikomanoak tarteko; hau da, aldaketak eragin nahi izan genituen arlo sozialean artea eta errealitatea muntatuz, nahastuz. Xede horrekin jaioa da egungo hau guztia”.

Horiek dira DK Muralismoren has-

**Bilboko lrala  
auzoan egindako  
skaterra  
DK Muralismok  
egindako  
interbentzio  
ezagunenetarikoa  
da.**

tapenak, enpresa moduan 2001ean sortu bazen ere. “Orain, muraletatik (gune publikoan koadrotzat edota irudi artistikotzat jo daitekeena) haragoko lanak egiten ditugu, batez ere gune publikoetarako arte-proiektuak. Gure helburuen oinarria bizi kalitatea hobetzea da” dio Badak; “hiritako ingurumen baldintzak hobetu nahi ditugu”, segi du Seik, “argi dago gure herriek (industriagintza edota azpiegitura erraldoiak direla medio, esaterako) gune degradatu asko dituztela, kolorerik gabeko arkitektura, paisaia, nagusi dela; itxura etsigarria duten gune horiek eraldatu eta suspertu nahi ditugu, jendearen erosotasuna eta osasu-





DK MURALISMO

na ahaztu gabe: kolorea osasunaren ezinbesteko osagaia da. Kritikoak gara oso hirian, normalean, erabiltzen diren koloreekin (grisak, banillak, okreak). Gure ustetan, tokian tokiko ikus-ezaugarriak eta ezaugarri kromatikoak itxuraldatzea beharrezkoa da erabat. Bestelako dira gure proposamenak”.

DK Muralismok mota guztietako eraikinetan lan egiten du: etxebizitza blokeetan, plazetan, kiroldegietan, eskoletan... Azpiegiturei dagokienez, beren diseinuak ikusgai daude euspen-ezpondetan, autobideetako zutabeetan, ur biltegietan, hesietan edota tuneletan. Formatu handiko muralak eta eraikinetarako estaldura artistikoak dira, gehienbat. Bilbo, Sestao, Lekeitio, Bermeo eta Madril ditugu, besteak beste, interbentzioen lekuko. Bilboko Kirikiño plaza, 2.200 metro koadroko lana, begien kuttuna dute.

Behin eta berriro azpimarratu duten bezala, lan guztiak kolorean daude oinarrituta: “Faktore garrantzitsua da. Zerbait egiterakoan, kontuan izaten dugu beti. Dena dela, leku guztiak ez dira berdinak, bakoitzak bere berezitasunak ditu: gune batean interbentzio bat egiterakoan, hango ezaugarriak aztertzen ditugu, hala nola, oinarritzko ikuspuntuak, inguruko paisaia, kultura eta ohiturak”.

DKren lanetan mota askotako diseinuak badira ere, geometrikoak eta gama kromatikoak (urdinak, gorriak, moreak, berdeak...) ugarriagoak dira figuratiboak baino. “Maiz, interbentzioa, lana, ez da egiten geuk diseinatu

Ezkerrean, Bilboko Trauko kaleko eraikin batean egindako interbentzioa. Eskuinean berriz, Kirikiño plazan egindako murala, 2.200 metro koadrokoa.

**Koloreen bidez hirietako ingurumen-baldintzak hobetu nahi dituzte DK Muralismoko kideek, gune degradatuak berreskuratuz**



DK MURALISMO

dugun bezala. Batzuetan, auzokideek proposatzen baitute zer edo zer”, dio Badak. Horixe da, adibidez, Arangoitiko ur biltegiaren kasua: auzoko historiari lotutako hainbat pertsona agertzen dira, biztanleek hala iradokituta. “Beste batzuetan, erakundeek, beren beharrei erantzuteko-edo, aldaketaren bat egiteko eskatzen dute. Gainera, kontuan izan behar dugu hainbat artistak osatutako taldea garela, eta nork bere lengoaia dauka”. Bi dira proiektuak sortzeko bideak: “Sarritan, denon artean jorratzen dugu diseinu zehatz bat; besteetan, bakoitzak pentsatzen du irtenbide bat, nahiz eta kasu horietan ere elkarri iritziak ematen dizkiogun”.


Enpresako bazkideak lau diren arren, arlo ugaritako profesionalekin egiten dute beharra; hamar eta hamabi pertsonako lan taldeak osatu dituzte behin baino gehiagotan. Horrek lan handiak egiteko gaitasuna eta kalitate maila handia izatea ahalbidetzen ditu. “Oso talde interesgarria izan ohi dugu, anitza. Horrek erregistro ezberdinak edukitzen uzten digu; baliabide asko ematen dizkigu”, azaldu du Seik; “horietako asko San Frantziskoak dira; hemengo harrobia baliatzen dugu lan egiteko. Garrantzitsua da hori: galeriak, estudioak, herri ugaritako kulturak eta artistak ditugu inguruan. Oso testuinguru sortzaile eta parte-hartzailea dugu”.

Gune publikoen inguruko ardura dutenez gero, erakundeak dira ohiko bezeroak, baina ez bakarrik. “Bulegoak ere egin izan ditugu. Diseinatzaileekin eta arkitektoekin lan nahikotxo egiten dugu”, azaldu du Badak; “eta ezin ahaztu ematen ditugun ikastaroak ere; gure lanaren alde inportantea dira. Mota guztietakoak ditugu, adin guztientzat, baita hiri artearekin edota muralismoarekin zerikusirik ez dutenak ere. Egin ahal dugu maskara tailer bat arte plastikoak gazteengana gerturatzeko, adibidez. Arte plastikoak zabaltzeko edota ludiko den zerbait egiteko”. ■

# Denbora-pasak

ANA ZAMBRANO

## Gurutzegrama



TXEFAR-CC BY SA

### Ezker-eskuin:

1. Luzera gainerako dimentsioak baino aski handiagoa duena. Eliz deiak, ezkon-deiak.
2. Emankor. 501 erromatar zenbakiz. 3. Toki hartan. **Argazkian**. 4. Arrainaren azaleko plaka txiki. Hemen dagoena. 5. Nori atzizkia. Mahometar printze edo gobernari. Auka, ondoko eta alga baten elkartzeak osaturiko landare. 6. Zain, aiduru. Ebakia. 7. Zatiki guztiz txikia, airean dagoena eta gauzen ganean gelditzen dena. Gizonezko izena. 8. Norbait. Tirriaz desirarazi.

### Goitik behera:

1. Leherkari. 2. Ukapen. 3. Bat-batean. Aurpegiaren atal. 4. Erbioaren sinbolua. Asiako herritar. 5. Mozkortu, horditu. 6. Etika. Kontsonante bikoitza. 7. Ardi hitz-elkarketan. Doktoretza lortzeko aurkezten den ikerketa-lana. 8. Nafarroako herria. 9. Mugetako bulegoa. 10. Adartxo berri. Portu. 11. Kirol-lehiaketa. 12. Lehor, agor. 13. Kalabaza. 14. Hegal, izkina. 15. Nazionalsozialista.

## Sudokuak

Erraza

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 5 |   | 2 |   | 1 |   |   |   |
| 1 |   | 7 |   |   |   | 5 | 2 |   |
| 2 |   | 6 |   |   |   | 4 |   | 7 |
| 9 |   |   |   | 8 | 5 |   | 6 | 4 |
|   | 4 | 3 | 7 |   | 2 | 8 | 9 |   |
| 6 | 8 |   | 4 | 1 |   |   |   | 3 |
| 4 |   | 8 |   |   |   | 9 |   | 6 |
|   | 6 | 9 |   |   |   | 1 |   | 5 |
|   |   |   | 6 |   | 4 |   | 8 |   |

Zaila

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
|   | 8 |   | 9 |   |   |   |   |   |
| 7 | 1 |   |   |   |   |   |   | 5 |
| 3 | 5 | 6 |   |   | 8 | 7 |   |   |
| 2 |   |   | 8 |   |   |   |   |   |
|   | 4 |   |   | 1 |   |   | 6 |   |
|   |   |   |   |   | 5 |   |   | 9 |
|   |   | 5 | 4 |   |   | 6 | 2 | 8 |
| 8 |   |   |   |   |   |   | 4 | 1 |
|   |   |   |   |   | 1 |   | 7 |   |

## Libiako sex-shopa

Udako oporrak Libian eman zituen Gasteizko bikote bati gertatu omen zitzaion.

Astebete basamortuan pasa eta gero, Tripolira itzuli ziren. Hotelera iritsi orduko jolasteko gogoia piztu zitzairen eta jostailu guztiak etxean ahaztu zituztenez, hotelko harreragilearengana hurbildu ziren:

– Kaixo! Ezagutzen duzu sex-shopen bat?



THE NOT QUITE FOOL

– Bai, noski! –erantzun zien harreragileak.

– Eta non dago? –galdetu zioten biek, irribarretsu.

– Berlinen! –erantzun zien harreragileak, etsiturik.

## Soluzioak

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 7 | 1 | 5 | 6 | 8 | 2 | 4 | 3 | 9 |
| 3 | 5 | 6 | 8 | 2 | 7 | 1 | 4 | 9 |
| 2 | 4 | 1 | 9 | 7 | 5 | 3 | 6 | 8 |
| 6 | 8 | 2 | 4 | 1 | 5 | 3 | 7 | 9 |
| 1 | 6 | 8 | 2 | 7 | 5 | 3 | 4 | 9 |
| 5 | 4 | 3 | 7 | 6 | 2 | 8 | 9 | 1 |
| 9 | 7 | 1 | 5 | 3 | 8 | 4 | 6 | 2 |
| 2 | 6 | 5 | 3 | 8 | 4 | 1 | 7 | 9 |
| 1 | 3 | 7 | 9 | 4 | 6 | 5 | 2 | 8 |
| 8 | 5 | 4 | 2 | 7 | 1 | 6 | 3 | 9 |

Erraza

Zaila

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 6 | 2 | 4 | 4 | 6 | 8 | 1 | 5 | 7 | 3 |
| 8 | 6 | 3 | 5 | 7 | 2 | 9 | 4 | 1 | 8 |
| 1 | 7 | 5 | 4 | 9 | 3 | 6 | 2 | 8 | 5 |
| 6 | 3 | 7 | 2 | 4 | 5 | 8 | 1 | 9 | 6 |
| 2 | 9 | 1 | 8 | 3 | 6 | 4 | 5 | 7 | 2 |
| 5 | 4 | 8 | 7 | 1 | 9 | 3 | 6 | 2 | 5 |
| 3 | 5 | 6 | 1 | 2 | 8 | 7 | 9 | 4 | 3 |
| 7 | 1 | 9 | 3 | 6 | 4 | 2 | 8 | 5 | 1 |
| 4 | 8 | 2 | 9 | 5 | 7 | 1 | 3 | 6 | 4 |


- Ezker-eskuin:** 1. Luzera, 2. Ertarok, 3. Zank, 4. Aho, 5. Ertarok, 6. Moral, 7. Art, 8. Test, 9. Aho, 10. Kana, 11. Ilda, 12. Ido, 13. Kana, 14. Ert, 15. Nazi.
- Goitik behera:** 1. Leherkari, 2. Ukapen, 3. Zank, 4. Aho, 5. Ertarok, 6. Moral, 7. Art, 8. Test, 9. Aho, 10. Kana, 11. Ilda, 12. Ido, 13. Kana, 14. Ert, 15. Nazi.
- Zaila:** 1. Leherkari, 2. Ukapen, 3. Zank, 4. Aho, 5. Ertarok, 6. Moral, 7. Art, 8. Test, 9. Aho, 10. Kana, 11. Ilda, 12. Ido, 13. Kana, 14. Ert, 15. Nazi.

# Liburuak

KRITIKA

*Bi marra arrosa.*  
Jasone Osoro.  
Txalaparta. 120 orrialde. 15 euro.

Helduen literatura  
Gema Lasarte



## Amatasuna

Osororen liburua irakurri berri dudala gauza asko datozkit gogora, ama naizen aldetik eta neure burua feministatzat daukadan sinesmenetik. Azken horretatik abiatuko dut gogoeta.

Emakumeen literatura omisioa izan bada, amatasunarena zer esanik ez, amek ez baitute idatzi. Woolfek esaten zuen modura, denborarik ere ez horretarako. Alabek idatzi dute, eta kronika hau hortik begiratura ongi etorria, izan ere, ukapenak eta isiltasunak ez baito inori mesederik egiten, eta zenbat eta gogoeta gehiago egin existitzen ez diren gaien inguruan, orduan eta hobeto.

Amatasunaren inguruan kritika feministak bi korronte ezkongaitz azaldu ditu beti. Berdintasunaren feminismotik amatasuna emakumearen mutilazio bezala ikusi izan ohi da. Diferentziaren feminismotik, aldiz, gauza handi bezala, diferente egiten gaituen zerbait bezala. Adrienne Riche izan zen biak uztartu nahi izan zituen, amatasuna esperientzia bezala goraiatu zuena, baina aldi berean, amatasuna instituzio bezala heterosexismoarekin batera patriarkatuak funtzionatu ahal izateko nahitaezko egitura bezala begitandu zuena.

Uste dut berdintasunetik, edota ama izateak berekin dituen iruzurren ingurutik Arantxa Iturbek saiakera xume bezain ederra eskaini zigula *Ai, ama!* saiakerarekin. Barre eginarazteaz gain, amatasunaren errealitateari ahotsa jarri zion Arantxak. Eta Arantxaren irakurketarekin iruzurraz gogartu nuen eta barre egiteaz gain, izugarri gozatu nuen. Aldiz, Osororena irakurri dudanean telebistako publizitatea etorri zait gogora, izenburu berberetik abiatuta. Agian ez dit ezer berririk esan, ez bada, Lander Garrok bere aitatasun esperientziarekin epilogoan umore puntua jartzen dionean. Bere bizi esperientzia eskaintzen digu Osorok, ilusioz eta beldurrez zipriztindua, baina Greta eleberraren egile ausarta ez dut irudikatu orrialde horietan barrena.

Marina Subiratsek edota Dolores Julianok aspaldi esan zuten zahartuak geratu direla elkar bizikidetzat tradizionalaren ereduak, familia tradizionala alegia. Eta egun beste mila koloreta-koak abian jarri direla, hain zuen ere, tradizionalak ez duelako funtzionatzen. Amatasuna ere uste dut erabat aldatu dela, amatasun diferenteak sortu direla, horrela, ama diferenteak ikus genitzake: bikotekidearen umeen amak direnak, homosexualenak, adoptatuak... Beraz, diskurtsoa beste bideak eskatzen ari da, beste esperientzietan oinarria hartzen ari delako amatasuna. Bukatzeko, ama naizen aldetik, Osorori eskatuko nioke, hemendik hamar urteren bueltan amatasunaren inguruan plazerrez idaztea eta nik berriro ere, bizi banaiz bederen, plazerrez irakurri ez ezik gogoeta egingen dudala. ■

## Cornelia Funkeren azken liburua euskaraz

Nazioartean sona du Cornelia Funkek haur eta gazte literaturaren esparruan. Haren lan berri bakoitza gertakari garrantzitsua da mundu osoko industria editorialarentzat. Euskaraz ezagutzen genizkion *Lapurren burua* eta *Tinta bibotz* eleberrak, baita *Txerrikume pirata* ipuina ere. Orain, Elkar argitaletxearen eskutik eta Aiora Jakak itzulita,

haren nobela berriena daukagu euskaraz: *Reckless, harrizko haragia*. Ispiluaren bestaldean gordetzen den fantasiazko mundua da istorioaren erdigunea. Ipotzez, maitagarritz, uretako gizonez eta antzeko izakiz beteta dago, eta haien artean abentura harrigarriak izango dituzte Reckless anaiek. ■



*Reckless.*  
Cornelia Funke.  
Elkar.  
293 orrialde.  
19,95 euro.

## Umeek Simon Bolivar nor zen jakin dezaten

Txertoa argitaletxeak *Nor da?* izeneko saila dauka pertsonaia historikoen bizitzak haur eta gazteei hurbiltzeko. Gaur hizpide dugun liburua Victor Vilardell Balasch-ek idatzi du 9 urtetik 12 urtera arteko haurrentzat eta Miren Arratibeli esker daukagu euskaraz irakurtzeko plazera. Simon Bolivar askatzaillea liburuan aitona Simon bihurtu da eta narratzaileak gogoratzen duenez, asko gustatzen zitzaion aitona Simoni kontu kontari aritzea. Gutxien esperotakoan hamaika istorio kontatzeko gai zen. Edo historia esan beharko genuke? Izan ere, Simonen kontakizunak bene-benetakoak ziren: txoriak kaiolatik askatzen hasi eta kontinente osoa askatu zuen gizonaren historiak. ■



*Bolivar askatzaillea.*  
Victor Vilardell Balasch.  
Txertoa.  
123 orrialde.  
9,95 euro.

# Diskoak

IKER BARANDIARAN



**Azkaiter Pelox & The Road Band Zuzenean!**  
Azkaiter Pelox.  
Autoekoizpena.  
Iraupena: 31'09". 10 euro.

## Kolore gehiagorekin hazitako kantutegia

AZKAITER PELOX dozenaka musika saltsatan murgilduta ibiltzen den Bergarako Unai Azkarate da. Berau kide den Mahaster River taldea ezagunagoa bada ere, aspalditik dabil Azkaiter Pelox izenpean bakarlari, kontzertuak egiten. Oraingoan, baina, Bergarako eta Orioko zenbait lagunekin batera, bakarkako piezak rock formatura egokitu eta talde izaera hartu du. Hala, oraingoan ere euskaraz abestutako bluesa eta rocka oinarri dituen arren, abestiak jantzi eta

aberastu egin ditu. Bere klasiko batzuk birmoldatzeaz gain —*Orratzen dantzen menpean* piezak, esaterako, intentsitatean asko irabazi du—, kanta berriak ere aurkeztu ditu, Cream zein Vince Taylorren klasiko bana oparitu dizkigu eta bonean hip-hop pieza batekin ausartu da. Diskoa zuzenean grabatuta dago bere bi “etxeetan”, Bergaran eta Orion.

[www.myspace.com/azkaiterpelox](http://www.myspace.com/azkaiterpelox)

### Unai Azkarate - Azkaiter Pelox

## «Banuen gogoak abesti akustikoak rock formatura egokitu eta taldean erakusteko»

“Orainaldia harrapatu ezinezko harribitxi bat baino ez da izaten, benetan iheskorra izaten da”. Horregatik beti zaude makina bat proiektutan sartuta?

Urte osoa Azkaiter Peloxen kantutegiari talde izaera ematen pasa dugu, abesti akustikoak rock formatura egokitzen eta kontzertuak prestatzen. Beraz, proiektu honetan nahiko zentratuta gaude oraingoan. Mahaster Riverri dagokionez, parentesia dago kide bat musikal batean lanpetuta dagoelako.

Zer oroitzapen dituzu Bergaran, Lainon, eta Orion, Kalakarin, egindako kontzertu hauetaz?

Oso onak. Bergarakoan, Laino skate parkea kontzertu areto bilakatu genuen; eta Kalakariri dagokionez, urteak dira gure proiektuen diskoak han aurkezten ditugula. Jendeari esan genion grabatu nahi genuela eta oso ondo hartu zuten.



“Zein polita den ulertzea esaten ez dena”. Zure hitzak interpretatu behar dira, ezta?

Bai, asko gustatzen zait abestien interpretazioak entzulearen arabera anitzak izatea; nahiago izaten dut zeri buruz hitz egiten den esan eta bakoitzak uler dezala.

Hainbat abesti lehenagotik berreskuratu dituzu. Buelta erdi eman eta hizea hartu dezaten?

Aspalditik neukan *Orratzen dantzen menpean* rock formatuan aurkezteko gogoia. Horrez gain, diskoak zuzenean denez, aspaldi sortutako beste abesti kuttun batzuk berreskuratzeko lizentzia hartu dut.

Harrituta gelditu naiz bonuseko hip-hop-a entzutean. Halako erregistroekin ere ausartzen zara? Eroso ikusi duzu zure burua horretan?

2009ko udan Orioko skate pistan ezagututako Bernat Ramon disko jartzaile kataluniarrarekin sortu genuen abesti hori, haren estudioan. Horrez gain, Laino skate parkeko inaugurazioan beste rap batean kolaboratu genuen, eta hitzak idazterakoan hori da aintzat hartu dudana. Estilo askotara nago zabalik eta egia esan behar badut, gero eta erosoago ikusten dut nire burua abestiak konposatzerakoan. ■

# Ezpalak

JON TORNER

## Uberan.org webguneak literaturzaleen zubi izan nahi du



HITZEN UBERAN izeneko webgunea ([www.uberan.org](http://www.uberan.org)) euskal literaturzaleen atari izateko asmoarekin sortu dute Oier Guillan eta Uxue Alberdi idazleek. Irudigileak, antzerkigileak, bertsolariak, argazkilariak, musikariak... artista guztien topagune izan nahi du webguneak. “Eragile asko daude Euskal Herrian literaturaren inguruan lan egiten, baina oso sakabana-tuta daude Interneten. Horien plaza nahi du izan honek”, dio Guillanek. Jendeak bere lanak sareratu ahal izango ditu, eta hilero musikari batek webguneako testu bat hautatu eta musikatu du.

leak, antzerkigileak, bertsolariak, argazkilariak, musikariak... artista guztien topagune izan nahi du webguneak. “Eragile asko daude Euskal Herrian literaturaren inguruan lan egiten, baina oso sakabana-tuta daude Interneten. Horien plaza nahi du izan honek”, dio Guillanek. Jendeak bere lanak sareratu ahal izango ditu, eta hilero musikari batek webguneako testu bat hautatu eta musikatu du.

## Zortzi libururekin abiatu da ‘EreiNeskatilak’ saila

EREIN argitaletxeak atzo aurkeztu zituen EreiNeskatilak bildumako aurreneko zortzi liburuak. Neskatilak dira gaxtetzoei zuzendutako liburuon protagonistak. Eta emakumezkoak dira zortzi istorioen idazle eta ilustratzaileak: Ana Urkiza-Aitziber Alonso, Arrate Egaña-Marimar Agirre, Leire Bilbao-Estibalitz Jalon, Yolanda Arrieta-Eider Eibar, Aizpea Goenaga-Ihinzta Larrañaga, Enkarni Genua-Karmele Cruz, Aitziber Etxeberria-Concetta Probanza eta Alaitz Olaizola-Idoia Beratarbide.

## ‘Apaizac obeto’ dokumentala estreinatu dute


JON MAIAK zuzendutako *Apaizac obeto* dokumentala aurkeztu du Orio Produkzioak ekoiztetxeak. Orain lau urte Albaola elkarteak Kanadara antolatutako espedizioan oinarritu da lana. XVI. mendean ozeanoaren bestaldera joaten ziren euskal arrantzaleen bizimodua irudikatu zuten bidaideek. Arrantza haien moduko txalupa eraiki eta eurak bezala jantzi ziren. 2.000 kilometro egin zituzten Red Bay izeneko badiaraino, euskaldunek utzitako arrastoaren berri emateko. Aurrerago DVD formatuan plazaratu dute.

**Erraldoien Txokoa**, Iruñeko euskarazko kultur ekintzen gune nagusia, desagertzeaz da. Hamalau urte dira sortu zela. Alde Zaharrean kokatua, han egiten dira Udalak euskaraz programatzen dituen ekitaldi ia guztiak. Musikari, artista, bertsolari, antzezle... asko aritu da Erraldoien Txokoan eta hiriburuko euskaltzaileen bilgune bihurtu da. Ordea, Foru Gobernuak haur-eskola publiko bilakatu nahi du lekua. Hala ere, Paz Prieto Iruñeko Kultur zinegotziak adierazi du euskarazko programazioa hartu dezaketen leku asko daudela hiriburuan.

**Itxaropena** argitaletxeak 36ko gerraren ostean argitaratutako *Kuliska* sortak jaso zuen Dabilen Elea saria astelhehenean, Donostian, Euskal Liburuaren Gauean. Ekitaldian Patxi Unzuurrungaza (1906-1984) Itxaropena argitaletxearen sortzailea gogoratu zuten.

## Eulalia Abaitua bilbotarrak

(1853-1943), Bigarren Gerra Karlistan Liverpoolera (Ingalaterra) alde egin zuenean ikasi zituen argazkilaritzaren teknikak. Bueltan, Euskal Herriko ohituren, jaien eta tradizioen dokumentu historiko garrantzitsua osatu zuen argazkien bidez. Bilduma horretako hainbat lan ikusgai daude orain, Bilboko Euskal Museoa. Horrez gain, Maite Jimenez Ochoa de Aldak *Eulalia Abaitua argazkilaria* liburua plazaratu du.



● **Dani Gutierrez Eusko Jaurlaritzako software librearen bulego teknikoko proiektuen arduraduna, Berrian** : «Inork ez du ukatuko iPad tramankulua ongi dabilela eta hedatuta dagoela aldian aldiko Windows programa erabiltzea; inork ez du ukatuko, halaber, duela urte batzuk burtsan 1.000 euroren Apple sagarrak erosi zituenak 3.000renak izango dituela gaur egun. Baina ikuspegi orokorrago eta luzera begirakoago batetik, agian aztertzeak izango litzateke produktu horiek ez ote diren hautabide ez-pribatuetan egindako inbertsioak baino kaltegarriagoak. Primerakoa iduri luke planeta osoko edo herrialde bateko biztanle guztiek BMW bat edukiko balute, baina kontua da ez dagoela guztiontzat adina, ez aipatzearen zenbaterainoko kutsadura ekarriko lukeen hainbeste auto izateak».



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso hari@DOAN e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

# Abarrak

MIKEL GARCIA

## Izua... umore handiz


**Monsters.** Zuzendari eta gidoilari: Gareth Edwards.  
Aktoreak: Whitney Able, Scoot McNairy.  
94 minutu. Britainia Handia, 2010.

BELDURRA PASATZERA EZ DAKIT, baina parrandarako eta barre egiteko gogoz joaten da jendea Donostiako Fantasiatzko eta Beldurrezko Zinemaren Astera. Filmak isiltasun baketsuan ikustea atsegin duzunetakoa bazara, ahaztu halako ekitaldiez, baina bestela esperientzia ezohikoaz eta katxondoaz gozatzeko aukera paregabea da, publikoaren parte-hartze biziarekin. Zeinek daki, etorkizuneko zinemak ikuslearen *feedback* hori bilatuko du beharbada.

*Monsters* filmean, estralurtarrek (olagarro erraldoien itxurako munstroek) Mexiko dute bizitoki, harresi erraldoi batez inguratutako AEBetako mugatik gertu. Gauzez ezkutalekuetatik ateratzen diren estralurtarrak kontrolpean izatea da politikari eta militarren helburua; eta bi protagonista estatubatuarrena, etxera itzul-

tzea. Eta filma ikusten zegoen publikoarena, gainontzekoak entretenitzea: proiektzioak jendearen komentarioak izan zituen bidaide, sarri denek buruan genuena ahots ozenarekin errepikatuz. “To! Eta gainera moralista da pelikula”, “bai zera, hori ez da batere siniesgarria!”, “elipsia ere existitzen da zinema munduan!”... Eszenarik finenak beharrean, jendearen komentario burutsuenak txalotu zituzten ikusleek. Azken finean, gehienek izua bilatzen zuten pantailan, odola eta sustoak, baina *Monsters* ez da ikarazko filma. Ordainetan, butaketatik girotu zuten emanaldia, nahiz eta mozturrotutako jendea bota nuen faltan.

Kontuak kontu, pelikula gustatu egin zitzaidan. AEBen politikari, immigrazioari, giza-harremanei eta barneko izuei buruzko gogoeta interesgarriak planteatzen ditu. Baina ez, ez da beldurrezkoa. ■



**FINAL FURROA**

**azaroaren 21ean, DURANGOKO LANDAKO GUNEAN 17:30ean**

**PLAZA KAFÉ GARA .com**

**LAGUNTZAILEA**

**argia**

Bizkaiko BFA DFB bbk DURANGO Durangoko Herrialdetako Antzerkialariak

# Zientzia eta teknologia

JOXERRA AIZPURUA

## Hubble espazio-teleskopioak etorkizuna “ikusten” laguntzen du

ORAIN ARTE Hubblei buruz argitara emandako informazio gehienetan iraganaren edota oraingoaren berri eman izan da. Baina Omega Centauri mulko globularrari egindako argazkien bidez mulko hori osatzen duten izarren ibilbidea datozen 10.000 urtetan zein izango den zehazterik izango da.

Centauro konstelazioan dago Omega Centauri, eta Ptolomeok topatu zuen orain 2.000 urte. Haren ustetan izar bat zena, gerora jakin dugunez, hamar milioi izar grabitate-gune komun batekiko biraka ari diren gunea da. Bertan aldaketak antzema-teko lau urte behar izaten dira.

Hubblek 2002 eta 2006 urteen bitartean ateratako irudiei esker, mulkoa osatzen duten izarren higidurak aztertu eta hurrengo 10.000 urteetan izango duten portaera aurreikusi ahal izan da. Lurrean kokatutako teleskopio batek 50 urte behar izango lituzke halako irudiak egin ahal izateko.



NASA

Omega Centauri mulko globularra.

## Gantza laser bidez kendu

Texaseko Unibertsitatean (AEB) gorputza birmoldatzeko laser ez-mingarria eta ez-erasokorra asmatu dute: Zerona. Horren bidez gantz-zelulak eraldatzen dira, eta gorputzak naturalki kanporatu ditzake. Estatubatuar administrazioak baimendu du honezkero teknika berriaren erabilera. Hori bai, gorputz-atal jakinetan baidik ezin daiteke erabili. <http://ttiki.com/18777> (Gaztelaniaz)


## Zentral nuklearren teknologia egokitzen

Erregai fosiletatik erregai garbirako trantsizioa luzea izango da eta teknologia nuklearra gero eta hobeto kokatzen ari da trantsizio horretan. Hori dela-eta, uranioaren eskasiari aurre egiteko estrategiak aztertzen ari dira. Kontsumitzen duena baino material fisible gehiago ekoizten duen erreaktorea izan liteke irtenbidea. <http://ttiki.com/18778> (Gaztelaniaz)

## Biopirateria kasuak

Leku bateko izakien propietateaz baliatu, baina jatorriko lekuetan ezer ere ordaintzen ez denean biopirateriaren kasu baten aurrean gaudela esaten da. Beheko loturan ikus dezakezen artikuluan Hegoafrikako bi kasu argi azaltzen dira. <http://ttiki.com/18779> (Frantsesez)

## Garuneko nerbioen argazkiak



WWW.KENNISLINK.NL

EINDHOVEN-EKO TEKNOLOGI UNIBERTSITATEAN (Herbehereak) garatutako software baten bidez, garunean gertatzen diren gaixotasunak errazago detektatu ahal izango dituzte medikuek.

Bart ter Haar Romenij irakaslearen arabera, garunean gertatzen dena ezagutzeko gehienetan teknika erasokorrak erabili behar dira gaur egun. Parkinson gaitza dutenei, adibidez,

hainbat kasutan mikroelektrodoa sartu behar zaie garunean.

Teknologia berriari HARDI deritzo eta espageti bat bezain egitura xeheak aztertzei gai da. Bide asko ibili beharra dago oraindik, garunean espageti baino txikiagoa diren nerbio asko baitago eta alor hori ezezaguna da oraindik. Dena den, orain arte lortutakoa hasiera baino gehiago da, gaitz askoren diagnosian oso lagungarri izango baita HARDI teknika.

Babeslea: **iametza Interaktiboa**

ideia batetik errealitatera

web garapenak

multimedia

aholkularitza

edukiak

**iametza**  
interaktiboa  
[www.iametza.com](http://www.iametza.com)  
T.943 37 67 16

# Landareak

JAKOBA ERREKONDO

## Irakurleak galdezka

Kaixo. Melokotoi arbola pare bat dugu. Duela zenbait urte aldatuak, aita hezurretik landarea sortuta. Ez ditugu inauten. Urte gehienetan ez dute ezer ematen baina aurten eman dute, eta urtea tokatzen denean, izugarri gustu oneko aleak ematen dituzte. Badakigu ez dela klima honetako fruta-arbola aproposa eta ez ditugula urtero izango. Berdin dio. Orain nahi duguna da, fruituen hezurak hartu eta arbola berriak izan. Noiz eta nola sartu behar ditugu lurpean? Beste aholkurik? Esker mila! Jokin Sorozabal (Orexa).

Iepa Jokin! Hola, hola! Segi aitaren arrastoari eta melokotoiarenari.

Hezurak heze mantendu behar dira, horixe sartu kaskoan. Bi aukera:

○ Melokotoia edo muxika jan ordurako hezurra erein. Batza edo muintegi bazterren bat da egokiena. Honela bide naturalari eutsiko diogu, hezurak naturan egingo lukeena. Arrisku bat dago, orde, tartean satain, muxar edo dena delako bisitariren batek jatea.

○ Hezurak geruzatzea. Aurreko batean intxaurrez galdetzen zian bati esan niona: urak alde egiteko moduko zuloak dituen ontzia –zurezkoa onena– eta erreka-hondarra eta lur beltza nahasketa (10-2 proportzioa) behar dituk. Ontzian hondarra, hezurak, hondarra, hezurak... geruzaka jarri, bukatzeko hondarra jarri lodi. Ontzia kanpoan eduki, toki fresko edo hotz batean; ito gabe baina hondarrari beti heze eutsi. Hezurak jango lituzketen animalietatik babestu, sare batekin edo dena delakoarekin.

Bietan udaberriarekin landare berriak ernatuko dira. Ereindakoak bertan haziko dira. Geruzatutakoak hondarrean eta landarea azaldu ordurako baratzera aldatu. Lehen urtean erruz ureztatu eta hurrengo neguan behin betiko bizitokian aldatu. Melokotoia, ederki diok, ez da hemengoa eta hezetasunari ihes egitea da koka: egutera beroenean, itzalik gabe, hormaren baten kontra, aldapan eta ahal bada muinotxo baten gainean jarri. Karea eta simaurra urtero eman. Ondeizuela.



Landareei buruzko galderaren bat egin edo gairen bat proposatu nahi badiguzu, bidali mezua [landareak@argia.com](mailto:landareak@argia.com) helbidera eta orrialde honetan bertan irakurri ahal izango duzu erantzuna.

## Mihi bi

MUSIKARIAK LANABESA, musika tresna hartu eta muturra ahoan pausatzen du, gozo. Muturraren muturra txorrotza da, *Arundo donax* kanaberazko mihia du. Kanabera ahoduna da, sorbatz mindaria du, zorrotza. Haragizko mihia kanaberazkoa miazten du. Bi mihien punttek elkar miazkatzen dute. Neure erara esango dut: musikariaren muturreko ahoko mihia eta musika tresnaren mutur txorrotzeko kanaberazko mihia elkar miazkatzen dute. Musikaren aireak eta musikariaren haizeak gero etorriko dira. Bi mihia jarriko dira dar-dar eta dantzan, *vibrato* agian. Haizea aire. Musika.

Musikak eta zurak elkarrekin bizi dute historia. Makina bat loria. Dar-dar egokia sortzen duten zurak dituzte gogoko luthierrek eta instrumentugileek. Luthierrek harizko instrumentuak sortu eta konpontzen dituzte. Izen hau frantseseko *luth*-etik dator eta hau *al-ūd* arabiarretik. Bi hitzok laut, instrumentua, adierazten dute; jatorrizko arabiarak, orde, esan, zura esan nahi du. Ebanista finen artekoak dira luthier onenak. Zurginak.

Era askotako zurak erabili izan dituzte luthierren hatz iaioek. Gehienetan zur astunak, hazkundera mantsoak trinkotu dituenak gustatzen zaizkie. Urtez urte enborra osatzen duten eraztun meheak, estuak eta beta fina dutenak. Durundi berezia eransten diote nonbait aireari. Fruta-arbolen enborrak beti miretsi izan dituzte: sagarra, udarea, gerezia, intxaurra, gaztaina... Hemen nagusi ditugun asko ere bere dituzte oso: lizar, haritz, pago, ler, urki, hagin, ezel... Astigarra, *Acer campestre*, izan da, hala ere, hemengo instrumentugileen kuttuna: halako soinu txikirik, halako pianorik... Gaur egun nonahiko egurrak dituzte hemen eta han lehengai: ebanok, kokoboloa, grenadilleak, wenge, sassafras, jarrah, padauk, bubinga, kaobak... Zurginen zuhaitzen izenen musika.



SPARTANSINSTRUMENTS.COM

Astigarra, *Acer campestre*.

WILLOW-CC BY SA

# Denboraren makina

N A G O R E I R A Z U S T A B A R R E N A

## Lombrosoren kriminal errugabeak

### Arrastoak

### Erromantzearen eta euskararen loturak

WWW.I LIKE BIKE.ORG



WWW.PSICOTERAPEUTAS.EU

Ezkerrean, Cesare Lombrosoren arabera kriminalen ezaugarri fisionomikoak dituzten pertsonen argazkiak. Eskuinean, Lombrosoren beraren erretratua.

TORINO (ITALIA), 1878. Torinoko Unibertsitateko medikuntza legaleko irakasle Cesare Lombrosok (1835-1909) *L'uomo delinquente* bere obra nagusia idatzi zuen eta, horrenbestez, positibismo kriminologikoaren oinarriak ezarri zituen. Korrante horren arabera, kriminaltasuna jarauntsia da eta "kriminal jaiotako" norbanakoak ezaugarri eta akats fisikoei erreparatuta identifika daitezke.

Urtetan kriminalen gorpuen azterketa antropometrikoak egin eta gero, Lombrosok kriminaltasunaren adierazletzat jo zituen zenbait ezaugarri, hala nola prognatismoa, aurpegi asimetrikoa, garezur asimetrikoa edo matrailezurraren eta belarrien forma jakina. Ezaugarri fisionomikoez gain, baziren bestelako eragileak ere; kriminalek oinazea sentitzeko eta ukimenerako ahalmen txikiagoa dute, ikusmen zorrotzagoa, banitate eta krudeltasun handiagoa. Horrez gain, gaizkileek argot berezia dute eta tatuajeak egin ohi dituzte azalean.

Hala ere, gizakiak delituak egitera bultzatzen dituzten faktoreak ez ziren soilik jaiotzetikoak. Lombroso-

ren eskola positiboaren esanetan, eragile sozialak ere baziren: ingurua- ren orografia, biztanleriaren dentsitate, elikadura, alkoholismoa, hezkuntza, egoera ekonomikoa, erlijioa edo klima. Italiako probintzia bakoitzaren urteko tenperatura eta homizidio kopurua alderatuta, beroak delitu horiek bultzatzen dituela ondorioztatu zuen, metodo zientifikotik urrun.


Emakumezkoek lapurretarako eta hilketarako joera txikiagoa dutela zioen, baina hori sustatzeko ez zituen argudio bereziki feministak erabili: emakumeak gizonez menpekoak dira naturalki eta gainera joera kriminal murrizak prostituziora bideratzen dituzte nagusiki.

Lombrosoren kriminalek ezinbestean burutzen dituzte delituak eta, hortaz, ezin zaizkie egotzi. Baina zenbat eta erantzukizun txikiagoa izan, orduan eta arriskutsuagoak dira eta zigor zorrotzagoa ezarri behar zaie. Logika horrek talka egin zuen erabat garaiko joera juridikoein. Baina bere metodoek egungoekin zerikusi gutxi izan arren, profil kriminologikoen bide oparoa (eta zuzenagoa) zabaldu zuen.

EUSKARA-ERROMANTZE Linguistika III. Jardunaldiak burutuko dira hil honen amaieran, bi hizkuntzok Erdi Arotik hona izan duten harremana aztertzeko.

Besteak beste, Urrezko Mendean Errioxa Garaian izan ziren euskararen eta erromantzearen arteko harremanak, Salesen euskarazko lehen itzulpenak, Lazarraga eskuizkribuan gaztelarak duen eragina, Nafarroako XIV. mendeko onomastika edo Inkisizioaren dokumentuetan XVII. mendeko Gipuzkoako gaztelarari buruz jasotako oharra jorratuko dira bertan.

Jardunaldiok Eusko Ikaskuntzaren Hizkuntza eta Literatura Sailak antolatu ditu eta Bilboko Kultura Ondarearen Zerbitzuko hitzaldi aretoan egingo dira azaroaren 23tik 25era.



Emilianotar glosak, XI. mende hasieran latinez, erromantzez eta euskaraz idatzitako ohar laburrak.

WWW.WIKIMEDIA.ORG

Battitte Salaberri

# «Bidasoako Partzuergoak ez du aski indar»

Hendaia, 1940. Hendaiaiko auzapeza. Zentristatzat dauka bere burua. Ikastolako presidente izana. Hirugarren legealdia du Herriko Etxean. Kotte Ezenarro sozialistaren ondoren hartu zuen agintea, duela bi urte eta erdi. Bidasoa-Txingudi Partzuergoko presidentea da uneon.

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Dani Blanco

BATTITTE SALABERRI bi legealditan aritu zen Hendaiaiko udal politikaren oposizioan. Alkate da orain: “Oposizioan biziki mugatua zara, inork ez zaitu aintzat hartzen. Auzapez gisa arras aldatzen da hori. Ardura ia osoki hartzen duzu. Ni ardura aldatzen edo gehiago partekatzen entseiatzen naiz, baina oposizioko hautetsiak –Kotte Ezenarro sozialista eta Iker Elizalde abertzalea– ez daude ados”.

Etxegintza izan da Hendaiaiko Herriko Etxearen zereginik aipatu eta polemikoena. Zertan da egun PLU (Hirigintza Tokiko Plana) delakoa?

PLU aldatu ondoren, ZPPAUP (Hiriko Ondare Arkitektoniko eta Paisajistaren Babes Gunea) ezarri genuen martxan. Hau da, lehen herrian garatu zen politika okerra bide onean eman dugu. Eraikitze baimenak gutxitu ditugu, eta proiektuak molde argiagoz bideratu. Aurreko udal gobernuak edozein proiektu urbanistiko ontzat ematen zuen, ez zen bide argia ez zuzena hiriarentzat. Hitz batez, hegoaldeko zetozen etxe sustatzaileek ate guztiak irekiak zituzten. Guk ateak itxi gabe, kontrol zorrotzagoa ezarri dugu.

Zertan dago horrenbeste zer esan eman zuen *Entre puentes/Zubietan* deitu proiektuak?

Proiektuaren altuera eta bolumena erraldoia zen. Trenbidearen arrail-



dura handiaren ordeztu gortorleku bat eraiki nahi izan zen. Gainera, etxebizitza horiek ez ziren hendaia-  
rentzat eginak: 379 bizitoki ziren aurreikusita eta 21 baino ez ziren babes publikoko etxeak. Legearen arabera, %20 babes ofizialeko etxeak behar ziren, baina aurreko udalbatzak ez zuen araua errespetatu. Finean, merkataritzako proiektua nagusitu zen.

**Zer aldatu da proiektuan, eta oro har, Hendaiaiko etxegintzan zu alkate zarenetik?**

*Zubietan* deitu proiektuaren lehen-biziko eraikina ez dugu ukitu. Beste lauak eginen dira, baina horietan bi solairu kentzea eskatu dugu, etxeak apalagoak izateko. Oro har, babes ofizialeko etxeak %30 izatea lortu nahi dugu. Lurra-  
ren %50 –lur eraiki gabea– urbanizatzen denean, berau proiektu sozialetara bideratzen dugu. Gauzak aldatzen ari dira.

**Krisi ekonomikoak nola eragin du Hendaian? Oposizioak herriaren garapena gelditu dela dio.**



**“Bidasoa Partzuergotik ateratzea pentsatu nuen une batez. Gero, halako borroketan sartzen bazara, herri mailan ari garenok galtzaile ateratzen garela pentsatzen duzu”.**

PLU zehaztu eta argitzean proiektuak gutxitu dira. Aldi berean, krisiak ere “lagundu” du sektorea apaltzen. Bistan da, sektorea gelditu da. Espekulazioa errazago kontrolatzen duzu, baina ez bada sektorea higitzen ez duzu ere ekonomia biziarazten ahal. Dirurik ez bada ezin duzu mirakulurik egin, bistan da. Krisiak, denetan bezala, sos gutxiago biltzea ekarri du udal kutxan. Udal programan aurreikusitako zerbitzu politika eta proiektuak aitzinera doaz, ez dira gelditu. Gutxiago egiten ari gara, baina gehiena aurrera doa. Egoera ekonomikoaren heinean ari gara, ez dut geldialdirik atzeman.

**Tokiko aireportua hizpide. Gipuzkoa-ko Diputazioak kritikak egin zizkizun aireportuaren aferan hartu zenuen jarrerarengatik. Nola azalduko zenuke gertatua?**

Madril eta Parisko arduradunen artean bilera egitea galdetu genuen. Udal gisara ez dugu deus egiteko-  
rik, ez da gure kompetentziakoa, alabaina guk pairatzen ditugu hegazkinen hotsak. Aireportuaren gaineko akordioa –bi estatuen artekoa– 1992an sinatu zen. Madrilgo eta Parisko sailek adostu zituzten kudeaketak. Guk bi aldeak gonbidatu genituen aireportuaren inguruan sortzen diren arazoei buruzko gure iritzia emateko. Bi gai ziren ikusgai: aireportuaren luzatzea eta hegaldi kopurua. Akordioak dioenez, 24 mugimendu edo hegaldi baino ezin dira egin eguneko. Hegaldi bat aieratzea edo lurreratzea izaki. Baina hori ez da errespetatu. Uda partean zenbait egunetan 40 hegaldi baino gehiago egin dituzte.

(...)

Joan den urtean, azaroan, tokiko prefetari eta Frantziako ingurumen ministroari galde egin nien teknikari bat igortzea. Ministeritzak bilera eginen genuela hitzeman zidan, akordioa ez bazen errespetatzen hegazkinak airetiko espazioan ibiltzea debekatuko zutela. Erratetik egitera badago diferentzia alabaina. Ez nintzen ni bakarrik kexatu, Hondarribiako eta Irungo alkateak ere kexatu ziren.

**“Komisario buruari erran nion ‘agian, horrela, zuk egiten ez duzun lana egingen du Ertzaintzak’. Haserretu zen”**

**Garai batean, aireportuaren luzatzearen kontra zineten Irun, Hondarribia eta Hendaiaiko udalak. Irungo alkate Jose Antonio Santanok iritzia aldatu zuen ordea.**

Santano, Espaniako Gobernua PPren esku zelarik kontra zegoen. Zapatero gobernuburu denetik, luzatzearen alde dago. Hori ulertze-  
ko goi-mailako politikaren aferetan sartu behar duzu, badakizu... Nik nire desadostasuna agertzeko, Bidasoa Patzuergotik ateratzea pentsatu nuen une batez. Gero, halako borroketan sartzen bazara, herri mailan ari garenok galtzaile ateratzen garela pentsatzen duzu...

**Txingudi-Bidasoa Partzuergoaren presidentzia kudeatzen duzu uneon. Nola baloratzen duzu berau?**

Partzuergoaren ardura hartu dudanean ohartu naiz anitz mintzatzen garela, baina praktikan gutxi egiten dugula. Nik jendeak eguneroko gauzetan abantailak lortzea nahi dut, hiru herrien artean gauza praktikoak egitea. Bi adibide praktiko emanen dizut: Bidasoako Ospitalea Baionakoa baino hurbilago denez, osasun zerbitzu hori baliatu nahi dugu. Tokian tokiko instituzioekin biltzen gara, baina ez da erraza. Irungo eta Hendaiaiko suhiltzaileen arteko elkarlana ere sustatu nahi dugu. Alde bakoitzeko suhiltzaile taldeak baditu bere berezitasunak, eta bien ahalmenak bilduz eta partekatuz gero zerbitzu hobea eskaini daiteke. Bi arlo horretan, tokian tokiko arduradunak ados daude, baina gainean ditugun instituzioen baimena behar da, ez da erraz aitzinatzen.

**Udalerriko instituzioak goiko beste batzuen menpe dira nolabait.**

Nolabait. Gauza praktikoak egin nahi ditugu, baina Partzuergoa ez da aski, ez du nahiko indar, zerbaite egiteko Eurohiria mailako erakundeetara pasa behar duzu. Gure

Herriko Etxearen gibelean ere Bordeleko eta Paueko Kontseilu Nagusiak dituzu, haiekin akomeatu behar duzu. Partzuergoa ongi da, baina bi aldetako instituzioekin akordatu behar duzu proiektu bakoitza. Bakoitzak bere beharrak eta mekanismoak ditu eta ate asko jo behar duzu.

**Kotte Ezenaroren garaian, prefetak Iparraldeko Herrien Elkargoan (Communauté des communes) sartzeraren behartu zuen Hendaia. Zertan da Herrien Elkargoa?**

Kotte Ezenarrokin Partzuergoarekin harremanak gehiago garatu nahi izan zuen, eta Iparraldeko Herrien Elkargoan (Communauté des communes) ez sartu printzipioz. Baina prefetak agindu zuena bete behar izan zuen. Egun Biriaturko auzapez Mixel Iriart buru duen elkargoan ari gara. Guk konpetentzia gehiago eskatzen dugu, Estatuak hemendik goiti ez baitio sosa udalerriei emanen, elkargoei baizik. Herrien elkargoei eskumen gehienak dituzte: ur, uren saneamendua, hizkuntzen ardura, euskara, kulturarena...

**Prefetak ere ikastolak ez laguntzeko agindua eman zizuen auzapezei. Afera zertan da Hendaian?**

Hendaiaiko Ikastola tipia geratu da, beste eskola bat eraiki behar da. Momentu honetan aferra geldirik dago, baina guk lagundu beharko dugu, bestela nekez egingen du aitzina Ikastolak. Prefeta legerari atxikia da, legearen bere irakurketa egiten du. Badakigu denok ikastolak beharrezkoak direla euskaldun osoak ateratzeko, elebitasun azkarra behar dela, eskola publikoko elebitasuna ez dela aski. Estatuko ordezkarien diskurtsoa nahasgarria da, batetik euskara edo hizkuntza tipiak salbatu behar direla erraten dute. Philippe Rey prefeta norbaitek kitzikatu du, beti badira halakoak. Guk proiektuak aitzinatzen ditugu, gero hauek geldiarazten dituzte. Beti borrokan eta lanean. Baina pasako da hau ere.

**Ertzaintza Frantziako polizarekin elkarlanean hasi da. Hendaian zentro berezia ireki dute. Nola ikusten duzu arlo hori?**



## Auzapez zentrista euskaltzalea

1995ean, Raphaël Lassalette auzapez sozialistarengana joan nintzen, eta bere taldean sartzea proposatu nion. Nire baldintza ekonomia arloko arduraduna izatea zen, axuanta: "Ez bazara ados ene zerrenda muntatuko dut" erran nion.

Bere taldeko lagunekin mintzatu ondoren, ados ziren, baina hautetsi soil bezala nahi ninduten. Ene nahikaria udaleko ekonomia arloko arduraduna (axunta gisa) izatea zen. Ezetza ukan nuen eta ene zerrenda osatu nuen lehen aldiz. Bozen %23 ateratu nuen zerrenda-buru bezala. Lassallettek eskuinari zerbait kenduko niola pentsatzen zuen, baina ez zuen uste ezkerreko bere zerrendatik hainbeste boz hartuko nuenik. Eskuinetik eta ezkerretik ia portzentaia bera irabazi nuen. Aski izugarria izan zen.

Bigarren aldian beheiti egin nuen, bigarren itzulian bozen %15 baino ez nuen erdietsi, zortzi puntu behera egin nuen. Eskuineko hautagaiak ene kontrako kanpaina gogorra egin zuen. Kotte Ezenarro sozialisten hautagaia izan zen lehen aldiz eta sozialisten zerrendak azkar egin zuen gora. Denak ene kontra aritu ziren.

Legealdi honetan, eraikuntza edota higiezinaren aferak tarteko auzapeza jalgi nintzen. 2001 urteaz geroztik PLU delakoa (Hirigintza Tokiko Plana) gaizki garatzen hasi zen eta oposizio azkarra egin genuen gure taldekoek. Ni auzitegi-eraman ninduten hirigintzako hautetsia difamatzeagatik. Auzia irabazi genuen eta legealdi honetan auzapez hautatua izan nintzen, Bateginik Aintzina zerrendaren izenean.

Egia erran Hendaian ohoen asko dabil. Hegoaldetik heldu da horietako asko, lapurreta egin ondoren beste aldera joaten dira eta libro. Akordio bat sinatu da bi polizien artean. Frantziako komisario buruari (Donibane Lohizunen dauka komisaldegia) erran nion "agian, horrela, zuk egiten ez duzun lana egingen du Ertzaintzak". Haserretu

zen nirekin. Hendaian arazo handia da arlo horretan. Joan den neguan hondartza aldeko etxe asko "hustu" zuten. Gainera, gauzak nahasten dira, ohoenak etorkinak direla diote... Beraz, hobe gauzak plantan jartzea. ■

**argia.com** webgunean AHT-z eta erakundeez esandakoaz.

## Pentsioen erreforma

# Erretiro adina 67 urtera atzeratzeak, zer ekarriko du?

Euskal herritarrak nazio subiranotasunik gabe bizi gara, eta zuzenean eragingo digute Espainiako eta Frantziako gobernuek eztabaidatu eta azkenean onartutako bi pentsio erreformek. Iparraldeko herritarrak, mobilizazio eta greba guztiak gorabehera, jadanik onartuta dagoen erreformaren ondorioak pairatzen hasi dira.

DANIEL UDALAITZ

EUSKAL HERRITARREK gaur egun ez dute pentsio sistema publiko propiorik —nahiz eta hala eskatzen duten sindikatu eta alderdi abertzaleek—, ez dutelako nazio subiranotasunik eta Madrilén eta Parisen erabakitzen denaren mende daudelako. Horrela, Iparraldeko euskaldunak, mobilizazioak eta grebak egin arren, Asanblea Nazionaletik eta Senatutik igaro ostean Frantziako Gobernuak jadanik onartu duen pentsio erreforma baten ondorioak pairatzen hasi dira. Hegoaldeko euskal herritarrok erreformaren atarian gaude, urtea amaitzerako onartuko baitu Espainiako Gobernuak. Azken aste eta hilabeteotan Toledoko Itunaren baitan ari da eztabaidatzen —alderdi politiko, patronal eta sindikatuen artean—, gero Kongresutik eta Senatutik igarotzeko. Derrigorrezko izapideak dira horiek, gero Espainiako Gobernuaren argi berdea jasotzeko.

Ikus dezagun pentsio erreformari buruzko eztabaida zertan den Espainiako Estatuan, eta zer eragin izan dezakeen euskal herritarrengan. Erreforma horrek bi gako ditu: erretiro adina 67 urtera atzeratzea eta erretiro pentsioaren kalkulua aldatzea, azken hamabost urtekoa izatetik azken hogeitaz urtekoa izatera pasa baitaiteke.

Erretiroaren adina 65 urtetik 67ra atzeratzea da Espainiako Gobernuaren asmoetako bat. Urrats hori pixkanaka egin eta



Eraikuntzako langileak, 1959tik aurrera jaiotakoak 67 urterekin erretiratuko lirateke.

2013an hasiko litzateke aplikatzen. Nola eragingo lioke etorkizuneko erretiratuari? Eztabaidatzen diren aukeretako bat, erretiro adina urtero bi hilabete atzeratzea da —hau

da, 2013an erretiratzen denak 65 urte eta bi hilabeterekin egingo du, eta horrela hurrenez hurren—. Hartara, 1959tik aurrera jaio direnak 67 urterekin erretiratuko lirateke.

## Iparraldea: bi urte gehiago lanean

Iragan urrian onartu zen Frantziako Gobernuaren pentsio erreforma, eta Iparraldeko euskal herritarrei ere eragingo die. Langile, ikasle eta herritarren greba eta manifestaldi ugariak ezin izan dute geldiarazi erreforma hori, Sarkozyk sustatua eta herritarren atxikimendua galarazi diona. Kontserbadoreen eta zentristen gehiengo onartu da. Frantziako Gobernuaren ustez, erreforma berri horri esker, estatuak 70.000 milioi eurotik gora aurreztuko du 2018tik aurrera.

Honako hauek dira erreforma horren gakoak. Onartu den pentsio erreformak Frantziako herritarren erretira-



Erreformaren kontrako manifestazioa Frantzian.

tzeiko adin legala 60 urtetik 62ra atzeratzen du. Pentsio osoa kobratzeko adina denbora kotizatu ez dutenentzat, erretiratzeko adina 65 urtetik 67ra aldatzen da. Era berean, luzatu egiten da pentsio osoa kobratu ahal izateko kotizatu behar den denbora, 40 urtetik 41,5era.

Sindikatuak exijentzien eta langileen eta herritarren mugimenduen aurrean Sarkozyren gobernuak egin duen kontzesio bakarra izan da erretiro adina 65 urtean mantentzen amentzat eta desgai-

tuen gurasoentzat.

### Urte gehiagokotizatzea eta pentsioaren kalkulua

Toledoko Itunaren baitan eztabaibatzen ari den pentsio erreformaren beste gakoetako bat urte gehiagokotizatzea da, pentsiodun bakoitzak jasoko duen pentsioa kalkulatzeko. Horrela, orain arteko pentsioak kalkulatu ziren pertsona bakoitzak kotizatutako azken hamabost urteen arabera. Dirudieenez, nahikoa kontsentsu dago kotizatutako urteak 20 urtera luza daitezen pentsioa kalkulatzeko. Nonbait, horixe da Espainiako Gobernuaren proposamena. Beste eragile eta aditu batzuk, baina, epe hori 25 edo 30 urtera luzatzearen aldekoak dira. Kotizazio epeak lan bizitza osoari eragitearen aldekoak ere badaude.

Testuinguru horretan, erreforma horretatik aurrera kobratuko litzatekeen pentsioa zer izango litzateke etorkizuneko pentsiodunentzat, hobe ala okerragoa? Horretan ez dago adostasunik, baina badaude azterketa eta kalkulu batzuk. Horre-

### CCOOk egindako simulazio batek kotizazio epea 15 urtetik 25era luzatzea ebaluatzen du, eta bere kalkuluen arabera, pentsioa %5 murriztea lekarke horrek

la, Madrilgo Unibertsitate Autonomoko soziologia irakaslea den Antonio Antónnek egindako eta CCOOk argitaratutako simulazio batek kotizazio epea 15 urtetik 25era luzatzea ebaluatzen du. 35 eta 39 urte arteko langile baten batez besteko soldata hartzen du, 20.964 eurokoa, 55 eta 59 urte artean 25.469koa izango dena. Kalkulatzeko epea hamar urte luzatzeak, bere kalkuluen arabera, %5eko murrizketa lekarke. Eta kasu horretan bertan lan bizitza osora zabalduz gero, pentsioaren murrizketa %16tik gorakoa litzateke.

Labour Asociados-ek egindako eta Espainiako Lan Ministerioak

diruz lagundutako beste azterketa batek Lan Bizitzaren Lagin Jarratua erabiltzen du oinarri gisa. Estimazio horren arabera, azken 20 urteak hartzen badira kotizazio epe moduan, gutxi gorabehera oraingoa baino %5 txikiagoa den pentsioa kobratuko litzateke. Azterketa horren egileek diotenez, urte gehiagora luzatuko balitz –pentsioaren %100 kobratzeko 35 urte baino gehiago eskatu gabe–, “pentsioa dezente murriztuko litzateke”.

### Pentsio maximoa eta minimoa

Espainiako estatuan, 2010eko pentsio maximoa hilean 2.466,20 euro gordinakoa da (urtean 34.526,80 eurokoa). Pentsio minimoen artean daude hileko 444,90 euroak –60 urtez beherako alargunentzat– eta hileko 725, 20 euroak, ezkontidea bere kargu duen 65 urteko edo gehiagoko titularrarentzat. Hamarnaka mila pertsona daude hilean 179,40 euroko umezurtz pentsioak jasotzen dituztenak, edo SOVIren 375,70 euro hilean. ■

Babeslea: Gaindegia

## EUSKAL HERRIAK: ERRONKA SOZIO-EKONOMIKOAK

13 elkarrizketa berri Euskal Herriaren erronka ekonomiko eta sozialez. Askotariko errealitate baten ikuspegi konprometituak.

**LIBURUA SALGAI** Gaindegia web gunean [www.gaindegia.org](http://www.gaindegia.org)





## Muriel Casals

Kataluniako Òmnium Cultural-eko presidentea

# «Esplizituki esan digute garen bezala ez dugula lekurik»

Kataluniako erakunde garrantzitsuenetakoa da Òmnium Cultural. 20.000 bazkidetik gora, erreferente da gizarte katalanaren egunerokoan, pisua dute bertatik esaten direnek.

Muriel Casals du lehendakari berri, lehen emakumea, eta berak gidatu zuen uztailaren 10eko manifestazio handia.

ARITZ GALARRAGA

Argazkiak: Oriol Clavera

**Hilabete mugituak azken hauek, ezta?**

Bizi-biziak izan dira. Martxo amaieran hartu nuen Jordi Portaren erreleboa eta utzi zidan herentzietako bat, haxe: Kataluniako Estatutuaren inguruan Auzitegi Konstituzionalaren sententzia negatiboren bat egotekotan, gure erakundeak bilgune gisa eskaintzea bere burua. Epaia ekain amaieran iritsi eta manifestazioa uztailaren 10ean egin zen,

tentsio handiko prestaketa egun batzuen ondotik. Orain, perspektibarekin, gauza ederrak ikusi genituen egun horietan: askotarik entitate ugarik parte hartu zuen prestaketan, baina manifestazioak ez luke izango izan zuen arrakasta baldin eta jende asko asko joan ez balitz bere kasa, ez bere elkargo profesionalak deitua, ez sindikatuak, ez alderdi politikoak, ez bere bizilagun elkarteak, indibidualki baizik.

**Itzuliko gara egun horretara, baina, hitz gutxitan, zer da Òmnium Cultural?**

Instituzio kultural, zibiko eta patriotikoa gara. Gure goiburuak dio: hizkuntza, kultura eta herria. Lanaren lehen partea da katalana ezagutzera ematea, maitaraztea, erabilaraztea; bigarrena, gure kultura babestea, zabaltzea; eta hirugarrena, herria errespetatzea, kontziente izatea zein den gure herria.

**Bada, neurri batean, erreferente moral bat, botere faktiko bat, akaso, Kataluniako gizarte zibilarentzat?**

Erreferentea, seguru, hiritar askorentzat eta baita administrazioarentzat ere, hori da gure asmoa behintzat. Pentsa, 1961ean sortu zen Òmnium, diktadura frankistaren aurreko erresistentzia garaian, administrazio katalan moduko bat izateko asmoz. Gauzak dezente aldatu dira gerora eta egungo administrazioarekin kolaborazio harremana dugu batzuetan, haren ordezkapena egiten dugu beste batzuetan. Administrazioak garbi du gauza batzuk egin behar direla eta ez du hain argi beste batzuk egin behar direnik, eta guk bai. Baina kritiko izatea dagokigu, administrazioa zirikatzeari, bai baitaude gauza batzuk hark baino egin ez ditzakeenak.

**Hori nola gauzatzen da egunerokoan?**

Gaur egunean guretzat oso garrantzitsua da immigrazioaren fenomenoa kontuan izatea, urte gutxian jende kantitate handia etorri da kanpotik. Jende hori sar daiteke hemengo bizitzan bertako hizkuntza eta kultura ezagutu gabe, gaztelania hutsean. Guk pentsatzen dugu hori gertatzen bada Kataluniaren geroa galdua dela. Kataluniaren geroa komunitate diferentziatu gisa bederen. Identitate katalana mantendu nahi badugu ezinbestekoa da iristen direnak katalan gisa sartzea eta, beraz, katalana ezagutzeko aukera eman behar diegu, gustuz ikas dezatela. Administrazioak, neurri batean, egiten du, baina ez da mundu guztiarengana iristen, ez leku guztietara. Lan handia dago, eta baliabide mugatuak. Òmniumek bere lanaren parte bat egiten du eremu horretan, hizketa taldeak antolatzen, aktibitate ludiko-kulturalak, katalan berriak eta zaharrak elkartzen. Administrazioak gehiago egin dezakeela uste dut, gehiago egin behar duela konbentzitutago eta zail zait pentsatzea gehiago ez badu egiten ezin duelako dela.

**Hiru ardatz, beraz, lehena hizkuntza. Katalanaren osasuna ona da, Euskal Herritik uste duguna bezainbeste?**

Nondik begiratzen zaion, edalontzia erdi beteta edo erdi hutsik egon

daiteke. Garrantzitsuenak, hala ere, edalontzia husten edo betetzen ari den jakitea da. Gure hizkuntzaren edalontzia betetzen ari denik ez da segurua eta oso aktibo behar dugu izan betetzen joan dadin. Asko dugu irabazia hizkuntza erraza baita gaztelania hiztunentzat, baina era berean jendeak pentsa dezake ez duela behar. Aurrerapausoak eman arren gure bizitzetako zati garrantzitsuetan ahul dago katalana. Gero, jarrera *snoob* xamarrek ditugu, kosmopolitismo faltsu baten izenean diogu garrantzitsuenak elkar ulertzea

**“Jaume Cabré idazleak  
*Les veus del Pamano*  
eleberraren 400.000 ale  
saldu ditu alemanez.**

**Alemanez gehiago irakurri  
da katalanez baino. Eta gu  
bitartean hemen gabiltza  
katalanez idazteak merezi  
ote duen galdezka.**

**Autoestimua falta dugu”**

dela. Mundu guztiak ulertzen badu gaztelania, zergatik erabili katalana? Bada, hizkuntza diferenteak egotea aberastasuna delako munduarentzat. Horrekin gu sendo mantendu behar gara eta ez dugu beti egiten. Immigrazioarena aipatu dugu eta oso maiz jarrera txatxuak ditugu, azal ilunagoa duen batek katalana ulertzen ez duela ondorioztatzen dugu eta gaztelaniaz egiten diogu, sarri hanka sartuz eta pertsona harenganako errespetu faltaz.

**Zeintzuk dira, oraindik orain, katalanaren erronkak?**

Immigrazioarena bat ziur. Hizkuntza komuna ezagutzea promozio sozialerako tresna dela argi gera dadila, tresna beharrezkoa batek lekua egin nahi badu gizartean, eta gizartean leku egiteak esan nahi du zoriontsu izatea. Prestigioaren erronka. Unibertsitatean dago eztabaida: irakasle bati eskatu behar zaio katalana jakitea? Noski baietz, kapaz behar du katalanez egiten dizkioten galderak edo azterketa ulertzeko. Hizkuntza prestigio inte-

lektual eta profesionalarekin lotzea ez dugu oraino irabazi, erronka da. Zinema Legea onartu da orain gutxi, pelikulak gaztelaniaz bikoizten badira katalanera ere bai. Edo beren jatorrizko hizkuntzan edo gurean. Gaztelania gu eta munduaren arteko bitarteko hizkuntza gisa erabiltzeki utzi behar diogu, katalana izan dadila gai munduari aurre egiteko.

**Eta norabide horretan pauso bat ematen den bakoitzean izaten diren kritikak?**

Aldaketa beti kostatzen da, beti daude erresistentziak. Gero bada go debaldeko gatazka maite duen jendea. Bai eta espainolizazio prozesu indartsua ere, aspaldi nazio espainiarrak ez zuen halako indarrik gurean, oso ausart daude orain. Penintsula zati hau menperatu nahi dute, gure balizko ihesak beldurtzen ditu. Proiektu espainol eta espainolizatzaile indartsua, erasokorra, bizi dugu hemen. Espainolista izatea Guadalajaran primerakoa iruditzen zait, baina bat espainolista denean Gironan, erasotzen ari da Gironako errealtatea. Hori oso gogorra da eta neurri berean erakargarria.

**Bigarren ardatza, kultura. Sarri marka gisa erabiltzen diren izen handi horiez haraindi, kulturalki herri bizia da Katalunia?**

Beti diogu txikiak garela, baina herrialde ertaina gara, Grezia, Portugal, Danimarka, Norvegia, Suediarekin konparagarria. Gisa horretako herri europarrei begira, eta musika, pintura, literatura, antzerki edo zinemari dagokionez, maila onean dugu sormena, uste baino hobeak garela esango nuke. Badugu hantuste puntu bat, lotsatiena, beldurtiaren erreakzioa kanpora begira. Eta barrura begira ez gara ausartzen balio dugula esatera. Jaume Cabré idazleak, esate batera, *Les veus del Pamano* eleberraren 400.000 ale saldu ditu alemanez. Pentsa, alemanez gehiago irakurri da katalanez baino. Eta ez da hain salbuespen, editorialek liburuak argitaratzen badituzte saltzen direlako da. Eta gu bitartean hemen gabiltza katalanez idazteak

merezi ote duen galdezka. Autoestimua falta dugu.

**Kultura lagundu kanpoan, baina baita Katalunian bertan ere.**

Kulturak baino gehiago hiritarrek behar dugu auto-laguntza pixka bat, baikortasun eta sendotasun injekzio batzuk, ahal dugula pentsatzea, bai sortzen duenarentzat zein kontsumitzen duenarentzat, eta bi horiek elkartzeko laguntzak ere bai. Agian hori da falta dena, komunikazio bideak, gure organo publikoek ez dute behar dena egiten gure kultura promozionatzeko. Kultura diogunean kultura katalanaz ari gara, noski, baina ez bakarrik: kultura katalana maite dugu kultura maite dugulako, herri kultua izan nahi dugu eta herri kultua bere autoreak ezagutzen dituen da, baina baita kanpokoak ere.

**Hirugarren ardatza, herria. Òmniumek protagonismo handia hartu du azkenaldian, Estatut-aren gaineko sententziaren aurkako manifestazioaz geroztik.**

Protagonismoa izan dugu, bai, baina leuna. Garbi genuen ez genuela inoren eremurik zapaldu nahi, ez zen hori gure helburua. Politikariekin ezer jakin nahi ez duten gizarte zibileko instituzioak daude; alderdi politiko batek ez du ezer jakin nahi beste alderdi politiko hartaz; eta Ònium agertzen zen elementu atsegin gisa, elkar ulertzeko lanak zituzen haiek izan zezaten gune bat. Egiteko zentrala izatea eragin zuen horrek. Eta sententziaren aurkako protesta manifestazioa esan duzu eta egia da hala zela hasieran, baina askoz gehiago izan zen gero, ez hainbeste sententzia baten kontrako manifestazioa, baizik eta Kataluniaren etorkizunaren aldekoa. Horrexegatik eslogana, *Som una nació, nosaltres decidim* (Nazioa gara, guk erabakitzen dugu). Han zegoen milioi eta erdi



*“Jarrera snob xamarrek ditugu, kosmopolitismo faltsu baten izenean diogu garrantzitsuena elkar ulertzea dela. Mundu guztiak ulertzen badu gaztelania, zergatik erabili katalana?”.*

pertsonek esan zuten etorkizuna geurea dela, gure herriaren etorkizunaren arduradun egiten garela.

**Mezu hori nola kudeatu da azken hilabeteetan, hauteskundeak begien bistan?**

Hauteskundeak daudenean dena konplikutzen da, lehiakideetako bakoitza saiatzen da esaten besteak baino hobea dela. Òmniumek nahi du mundu guztia joan dadila bozkatzera, abstentzioa da okerreana, ez da posible parlamentura lau bozekin joatea. Gure boza gure geroko exijentzia izango baita eta boza eman diegun neurrian ofentsiba bateratuagoa egin behar dugu parlamentuan daudenean. Uztailaren 10a mugarri izan da, ezin izango dute ezer pasa ez balitz bezala jokatu. Onartzen badugu sententziak mutilatzea, onartzen dugu gure naziotasuna hustea, onartzen dugu atzera joatea, eta oso larria da hori.

**Osatzen den puzzlearen araberakoa izango da erantzuna, ezta?**

Puzzlea dena dela ere, estutu beharko ditugu atzera ez egiteko konpromiso horretan. Printzipioz denek dute konpromisoa, denak ziren manifestazioan. Gurean bi alderdi handi daude, CIU eta PSC. Herri honek ezin du aurrera egin horiek gabe, ikusiko dugu atera diren talde berri guztiek zer presentzia izango duten, baina garrantzitsuena da talde nagusiak hor behar dutela, horiek gabe ezin da herria egonkortu. Talde txiki eta gizarte zibilaren lanetako bat da, hain zuzen, alderdi zentral horiek estutzea, zuhurrak baitira oso: CIU-ren kasuan bozak galtzeak beldurra ematen dielako eta PSCren kasuan zati batek zalantza egiten duelako proiektu espainolista eta katalanaren artean. Hori ere jakin behar dugu, badagoela herriaren parte bat proiektu espainolak erakar dezakeena eta,

gehiengoa beste bat baldin bada, eta hala dela uste dut, bilatu behar dugu modua sinistartzeko Katalunia katalana ingurune atsegin izango dela espainol sentitzen denarentzat, frantses edo italiar sentitzen denarentzat bezainbeste.

**Manifestazioak gizarte katalanaren nekea ere agerian utzi zuen.**

Eskatu eta mozten digute, pixka bat gutxiago eskatzen dugu eta ea zer gertatzen den. Demokraziako urte guztiak izan dira horrela. Baina Kataluniak zenbat eta eduki gehiago izan, orduan eta presentzia urriagoa dute hemen Espainiako instituzio eta administrazioek. Hori Espainiako instituzioek onar zezaketen eta federalismorantz joan edo, gertatu dena, erresistentzia lan batean jarri dira, terrenoa berreskuratu nahian. Instituzio katalanen birkonkista egiten ari dira, deskatalanizazioa bultzatzen. Norgehiagoka dago gaur egun, ez

bortitza, baina borroka molde bat bai.

**Urrunago joateko borondatea daukazuela, alegia.**

Ahots ugari entzun ziren uztailaren 10ean, baina errepikatuenetakoa independentziarena izan zen. Òmniun erakunde gisa ez da independentista, bazkideen artean denetarik dago. Jordi Portak galdera paratzen ziotenean zioen, “ez, Òmniun ez da independentista, baina lan egiten du independentziaren gaineko erreferenduma egiten den egunean irabaz dadin”. Beraz, guk lan egiten dugu independentzia gauzatzeko. Gero, katalanismoak etapa amaiera bizi du, katalanismo tradizionalak Espainia modernizatzea zuen gogoan, eta Espainia modernoan lekua genukeela uste zen. Ondo. Espainia moderna da jada eta ikusi dugu eta esplizituki esan digute garen bezala ez dugula lekurik, katalan izateari uzten badiogu sartzen garela, bestela ez. Saia gaitezke enegarrenez espainolak aldatzen, Espainia plurala eta gisakoak aipatuz, baina, aizue, Espainia zera homogeneo bat da. Gu aterako gara eta izan gaitezen bizilagun onak. Hain iruditzen zait arrazoizkoa, gureganako errespetuz, baina baita haienganako ere. Bakoitzak bere bidea, bizilagun onen antzera.

**Independentziak hobetuko lituzke hizkuntza, kultura eta herria?**

Noski, eusteko egiten dugun lanaren zati handi bat aurrera egiteko erabiliko genukeelako, ez genuke esplikatzen ibili beharko guk ere literatura ona dugula, literatura ona egiten ariutuko ginatke zuzenean. Konplexuak kenduko genituzke gaineratik eta espainiarrek lagun bat irabaziko lukete, kontent, erlaxatuta legokeena. Eta ez diet espainolei leporatzen garen bezalakoak izaten ez uztea: gu geu ez gara ausartzen gure esperantza argiki planteatzera. Hori da aldatu beharrekoa. ■

# XIBEROA, LAPURDI ETA BAXENABARREKO BERTSULARI XAPELKETA FINALA 2010

WWW.XILABA.NET



## DONIBANE LOHIZUNE AZAROAREN 13AN - 17:00ETAN JAI-ALAI PILOTALEKUAN

Odel Barroso / Joanes Etxebarria / Miren Arletxe / Xumai Murua  
Ekhi Erremundegi / Eneritz Zabaleta / Amets Arzallus / Sustrai Colina



Laguntzaileak:

**argia**

**Kilimak katalanez**

NURIA RITA SEBASTIAN euskalduna da eta *Editora con carrito* ([www.editoraconcarrito.com](http://www.editoraconcarrito.com)) ize-neko bloga dauka. Bartzelonan bizi den kazetari honek hizkuntzekin izan duen eta duen esperientzia kontatu digu. Ama hizkuntza gaztelania du eta euskara ikasterik ez zuen lortu, A ereduak ikasi baitzuen, eta ETB1eko marrazki bizi-dunak ulertzea iritsi zen. Ingalaterrara bidaiatzen hasi zenean “yes” esan beharrean “bai” esaten zuen. Blogariak kontatu digunez, buruak agintzen zion ama hizkuntza ez zen beste hizkuntza ateratzeko, eta nahasmen horretan, ingelesa beharrean euskara ateratzen zitzaion.

Bartzelonara joan zen hurrengo eta kontatu digu nola bere burua harrituta utzi duen lan kontuetan ari zela gaztelaniaz egindako galderari katalanez erantzun dionean. Lanagatik katalana ikasi beharra izan du, baina katalana ikasten hasteko arrazoia ez da lana izan, bikotekidea baizik.

Sebastianek gogoan du katalanez ikasi zuen lehenengo hitza: *pessigolles* (kilimak). Asko gustatzen zaion beste hitz bat *melic* (zilborra) da, eta idazten baino lehenago ikasi zuen gozatzen, intimitatean.

**Etxepare abian da**

AZAROAREN 5EAN ireki ditu atea Etxepare Euskal Institutuak

Donostian. Aizpea Goenaga zuzendariak euskal kultur produkzioa munduan zehar ezagutzera emateko zubi-lana egin nahi du. Laster Kataluniako Ramon Llull eta Espainiako Cervantes institutuekin hitzarmenak sinatuko dituzte.

**Kontseiluaren jardunaldiak Iruñean**

JARDUNALDIAK azaroaren 24 eta 25ean izango dira *Euskararen unibertsoak pauso bat harago* izenburupean. Bi ardatz nagusi izango dituzte: euskararen normalizazioa eta euskalgintzak aurrera begira segi beharreko bidea.



Honelako albisteak egunero irakurtzeko, jaso [hari@DOAN](mailto:hari@DOAN) e-postaz: [www.argia.com/harpidetza\\_haria.php](http://www.argia.com/harpidetza_haria.php)

**TALAIAN****BBVAren “kirola”**

BBVAk duela gutxi hitzarmena sinatu zuen NBArekin lau urtetarako. Urtean 25 milioi euro inbertituko ditu babesle gisa. Modu berean, Espainiako Futbol Liga Profesionaleko babesletza berritu du, 43 milioi euro ematen ditu horrengatik. Orotara, euskal jatorriko bankuak urtean 70 milioi euro inbertituko ditu bi kirol erakundeak patrozinatzeko. Francisco Gonzalez BBVAko presidentearen arabera, kirol erakunde horiek eta bankua “gizarteari adiskidantza eta esfortzua bezalako baloreak transmititzeko tresna izan litezke, horrelakoak ere bai baitaude BBVA, kirolaren bankua”. Esaldiok zinokoak dira, zeren eta BBVAren “kirola” Santander bankuak 1 Formularekin praktikatzen duen bera da. Botin-en bankuak 50 milioi euro inbertitzen ditu urtean 1 Formularen baina inbertsio horren euro bakoitzeko beste bost irabazten ditu. Santanderrek denboraldi honetan 250 milioi euro eskuratuko ditu, 2014ra arte inbertituko duena urtebete berreskuratzeko.

Hori da Santander bankuko Botinen benetako “kirola”. Hori da, baita ere, BBVAko Francisco Gonzalez benetako “kirola”. Espekulazioaren “kirola” da, errentagarritasun handiko sektoreetan inbertitzearena, enpresa txiki eta ertainei iturria ixten dien bitartean, ez direlako hain errentagarri eta seguruak. Joan den astean BBVAk Turkiako Garanti bankuaren %24,9a erosi zuen 4.200 milioi eurorengatik, bere kontrola bost urtean izango du BBVAk eta etekin handiak lortuko ditu horrekin. Beraz, BBVAren “kirol baloreak”, banka handiarenak bezala, lukurreria eta etekin maximoa dira, eta bere enplegatu askoren prekarietatea. Horrela baino ezin da ulertu 2009an Santanderrek 8.943 milioi euro irabazi izana eta BBVAk 5.736 milioi euro. Aurtengo urtariletik irailera BBVAk 3.668 milioi euro irabazi ditu jadanik, hori da bere benetako “kirola”!

Juan Mari Arregi

**BAHEA**

Jokin Labaienek *Berria* egunkarian esanak: “Kerman Ugarte, *Kerman mintzalagun bila*-ko protagonista friki gisa irudikatzen dute. Ordea, betaurrekoak, lepokoa eta tonu behartua desagertzean, pertsona normalaren itxura hartzen du arbelaren laguntzaz aholkuak ematen dizkigunak. Ez naiz betaurrekoez, lepokoez eta hizketa moduez ari. Hau ez da haien aurkako apologia. Baina horiek dira ikasten ari direnak eta irakaslea desberdintzen dutenak. Euskara ikasleak era batekoak eta euskara etxean jaso dugunak bestelakoak bihurtzen gaituztenak. Eta ikuspegia eta mezua ez dira zuzenak. Ez telebistarako, ez kalerako. Euskal hiztunak euskara bezain anitzak baikara”.

**SOLOZABAL**  
*Eskura ezazu teorikoa 5 egundean  
edozein gidabaimenerako*

- IKASTARO INTENTSIBOAK
- CAP IKASTAROAK
- ADR IKASTAROAK
- GARRAIOLARIEN LANBIDE-TREBAKUNTZAKO IKASTAROAK

☎ 943 217 390

[www.solozabalautoeskolak.es](http://www.solozabalautoeskolak.es)

## Anoeta, Zutabe 106 eta Auzitegi Nazionala

**ANOETAKO PROPOSAMENA** dela eta, Arnaldo Otegi, Joseba Permach eta Joseba Alvarez epaituko dituzte ostegunean Espainiako Auzitegi Nazionalan. Egun berean, Eusko Jaurlaritzak biktimen memoria omenduko du, Espainiako Estatuaren ehunka biktima bazterrean utzita. Aste honetan ekin dio Lopez lehendakariak —ezker abertzalea kanpoan utziz— bake prozesuaz jarduteko alderdien errondari.

Aste honetan, halaber, Brian Currinek ETArekin hitz egingo duen nazioarteko boskotearen zeregina azalduko dio euskal gizarteari, argi utziz ez dela erakunde armatuarekin bilduko honek Bruselako Adierazpenari baietza eman arte. Bitartean, PSE-PPren gobernu itunaren jarraipen batzordeak ezker abertzalea eta PSE-EEren arteko bileren ika-mikaz jardungo du, Jesus Eigurenen bidea pertsonalizatuz eta gutxietsiz, baina sozialista eta ezker abertzalekoen kontaktuen atea ezin itxiz.

2004ko azaroan aurkeztu zuen Batasunak Anoetako Proposamena eta han irudikatu zen lehenbiziz zer bait berria egosten ari zela ezker abertzalean. Aurrera begira bide soilik politikoak erabili behar zirela azpimarratzeaz gain, ENAMek lehenbiziz onartzen zuen negoziaketa batean gai politikoak alderdien mahaian ebatsiko zirela eta ETak eta Gobernuak gai “teknikoez” jardungo zutela, hau da, nagusiki preso, errefuxiatu, arma eta gisakoez. Gero Loiolako prozesuan eskema ez zen bete, baina hazia ereinda zegoen.

**ANOETAKOAREN ONDOREN**, zala-parta handia eragin zuen ETaren 106. *Zutabe*-k. Bertan, beste gauza askoren artean, erakunde armatuak segurtasun indarren aurkako mehatxuak berresten zituen eta *zerga iraultzailea* ordaintzen ez zutenei ere



mezu bera luzatzen zien. Bere edukian argi ikusten zen Belodromoko ekitaldia baino lehenago idatzia zegoela, baina Espainiako hedabide zenbaitek azpimarratu zuen ETak Batasunaren ekimena baliogabetu nahi zuela horrekin.

Zelanbait, ekitaldiak gizartean eta alderdien aldetik izandako harrera ona desegin gura zen, zer eta gutxi gorabehera adieraziz Batasunak bakea nahi zuela, baina ETak ez, eta honek gauzak bere lekuan jartzen zituela *Zutabe* harekin. Gaur egun, orduan Batasunaren eta ETaren nahiak oso garbi bereizten zituztenek, Otegi ETaren aginduetara ari zela azpimarratzen dute Auzitegi Nazionalako epaiketari.

Jesus Eiguren eta Arnaldo Otegi-ren elkarriketak giltzarri izan ziren Anoetako Proposamenera iristeko eta esperantza handiarekin hartu ziren euskal gizartean, horren adibide ugari dira hemerroteketan. Patxi Lopez berak ere, nahikoa ez zela adierazi zuen, baina urratsa zela onartuz; Jose Luis Rodriguez Zapaterok geroan ibili ahal izateko zirrikituaren ideia azpimarratu zuen. Egun Patxi Lopezek Gobernuaren sailburu den Gemma Zabaletak orduan ARGIAri adierazitakoak laburbiltzen du orduan Belodromokoari egin zitzaion harreraren giroaz: “Nik ere Anoetako proposamenaren alde egiten dut”.

**PATXI LOPEZEN GOBERNUAK** ordu zailak bizi ditu, PPren presioa eta Madrilen PSOE ematen ari den urratsen artean kateatua. Bi norabideko urratsak Ferrazekoak: bate-tik, EAJrekin lotutako akordioak eta, bestetik, ezker abertzalearekin zeharka daramatzan ustezko kontaktuak.

EAJren babesari esker, 2012ra arteko arnasa lortu du Zapaterok eta tarte horretan bake prozesuan bideratu beharreko urratsak ondo doitzeko denbora hartu, jakinik gai hau giltzarri izan litekeela inkesten norabidea aldatzeko. Ez dirudi alor ekonomikoak asko lagunduko diotnik, eta bake prozesua dela eta, PPren presioa ere itogarria bihur liteke. 2006ko esperientzia hor dago. Baina asmatuz gero eta 2012rako ETA jadanik ez dela jardun armatura itzuliko garbi bistaritzen bada, Raxoi garaitzeko zirrikitu bat zabalik gertatuko zaio.

PSOEek edozein modutan izango du gaitza 2012an, baina Espainiako gobernuburuak nekez ahaztuko ditu 2004an Moncloa zapaldu aurreko egunak. Inork ez duen txakur handirik emango bere alde, baina Aznarrek 11-Mko atentatuez egindako kudeaketa baldarrak gobernuak lehendakaritzan jarri zuen. Historia ez dela errepikatzen diote, baina badaezpada...

## Kutsadura da eritasun modernoia guztien ama

Kantzerraren kontrako gerra atzekoz aurrera dago antolatuta: diru gehienak eriak artatzeko botika berrien bilaketa eta produkzioan inbertitzen dira, aldiz, prebentzioan oso gutxi. Minbizia ezin dela prebenitu? Frantziako ARTAC elkarteak kancerologoek alderantzizkoa diote, kutsadurari lotuta daudela kancer –eta beste gaixotasun– gehienak.

KRONISTAK AITA ZAHARRA ERAMAN balu urriaren 30ean Baionako Lurramara Dominique Belpomme medikuari entzutera, ez zen erantzuki irribarretsu bat aditu gabe aterako. Zenbat aldiz ez digute esan garai batean orain baino gaixotasun gutxiago zegoela? Beste hainbestetan diegu erantzun ezaguera kontua zela. Belpomme kancerologoak arrazoi emango zion 1916an jaioata gure aita baserriar obreroari.

Laborantza Ganbarak laugarrenez antolatu du Lurrama nekazaritza iraunkorraren feria Baionan, Errobi bazterreko Glain-en, udalak elkarrean zerbitzurako eraikirik daukan gunean. Aurtengo edizioan Dominique Belpomme izendatu zuenez aita-bitxi, feriako mintzaldi nagusia berari zegokion. Jaki ekologikoz elikatzeak kantzerraren prebentziorako daukan garrantzia zentratu zen.

Baina estreina gizarte industrializatueta gaixotasun nagusien egoeraren ikuspegi orokorra eman zuen. Belpommeren ideiak zehaztasunez ezagutzen ez dituen harrituak zen: kantzerra epidemia bihurtu da, eta ez kantzerra bakarrik, obesitatea, diabetesa, hipertentsioa eta eritasun kardiobaskularrak, alergiak, Alzheimer bezalako gaixotasun neurologikoak, autismoa... izugarri ugari dira eta ugartzen segiko dute: ezingo omen dira kontrolatu.

Bere liburuetan ideiak lehendik azalduak ditu Belpommek. *Ces maladies créées par l'homme* (Gizakiek sortutako gaixotasun horiek) titulua daraman horretan, hasieratik dio Bigarren Mundu Gerratik landa eritasun berriz itota gaudela. Alegia, ordura arte medikuntzak aurrera-pen handiak egin zituela mikrobioek, funtsean bakterioek, eragindako gaitzak sendatzen, baina geroztik dena dela diferente.

Bi adibide jartzeko, Alzheimer doktoreak izen bereko eritasuna 1911an deskribatu zuela, aurretik oso bakan ageri zelako. Kantzerrari dagokionez, Belpommek berak (67 urte ditu) mediku gaztea zenean bitxitzat hartzen ziren minbiziak gaur oso zabalduta daudela. Hori frogatzeko kancerologoak estatistikak aipatzen ditu sarri.

Eta zer dago gaitzon ugaltze handiaren oinarrian? Belpommek okertzat jotzen ditu sarritan aipatu izan diren eragileak: estresa, bizimodua, populazioaren zahartzea, janaria... Ez horiek eragin kaltegarriak ez daukatelako, baina bai kancer bat sortzeko baldintza bat gehiago behar dutelako: zelulak kontrolik gabe eraldatu eta ugaltzen hasi daitezzen gai mutagenoren bat behar da.

Mutagenoak izan daitezke edo birusak, edo erradiazioak edo gai kimikoak, eta hauek gure ingurume-

Dominique Belpomme doktorea Baionako Lurrama ferian eskainitako hitzaldiaren bukaeran, ondoan Irulegiko Irratiko Jojo Bidart kazetaria duela. Kancerologo buru duen ARTAC elkarteak 2004an *Cancer, Environnement et Société* solasaldia antolatu zuten, zeinaren ondorioz sortu baitzen *Appel de Paris*, Parisko Deialdia. Sona handiko pertsonalitateek sinatu dute geroztik idatzi hura, hala nola Nicolas Hulot, Boutros Boutros-Ghali, Luc Montaigner doktorea, eta abar luzeak, gehi 1.000tik gora elkartek eta 200.000 herritar baino gehiagok. Kutsadura kimikoak haurrarentzako eta oro har gizakiaren biziraupenerako dakarren arrisku nagusiaz ohartarazi du Parisko Deialdiak, gero mundu osoko mediku elkarrekin bereganatu dutenak. ARTAC elkartearen webgunean *Prévention Environnementale* atalean minbiziaren eta ingurumenaren arteko loturez dokumentazio mamitsuak daukate..

nean hainbeste zabaldu izana lotzen du Belpommek kancerrekin. Funtsean kutsadura kimikoan murgildu zen bera hitzaldian eta sententzia hau bota zien entzuleei: “Orain eza-gutzen dituzuen ehun urteko zahar horiek adin horretara heldu dira kutsadurarik gabeko haurtzaroa ezagutu zutelako. Gure belaunaldietan ez da gertatuko horrelakorik”.

### Dosi txiki etenik gabeak

Dominique Belpommeren hitz, artikulua eta liburuak anekdotak liriteke baldin eta bera ez balitz Frantzian eta Europan erreferentziazko kancerologo eta bere inguruan ez baleuka beste profesional askoren adostasuna. Association pour la Recherche pour la Recherche Thérapeutique Anti-Cancéreuse (ARTAC) elkarte biltzen dira horietako batzuk, baina honek akuilatuta Frantzian adostu dokumentu eta itunek askoz profesional gehiago bildu dituzte.

Belpommek mediku lana egin du, ikerketan aritu da, unibertsitatean irakatsi, eta agintari politikoek aholkua eskatu diotenean plangintza publikoan parte hartu ere bai. Une batez Jacques Chiracek eskatu zion minbiziaren kontrako plangintza kudeatzeko. Gaur askoz mesfidatiago da agintariak honetan egiten ari direnaz, eritasunen prebentzioan behar adina egiten ez dutelakoan.



2007an Parisko gobernuak *Les Grenelles de l'Environnement* (Ingurumenari buruzko azterketa nagusia, esan genezake euskaraz) abiarazi zuenean, politikoen eta medikuen arteko harremanak ez ziren ongi pasatu eta azkenean hauek agiri alternatibo bat aurkeztu zuten. Argigarria da.

Hego Euskal Herrian eta oro har Espainian kutsadura aferetan medikuen elkarrekin agertzen duten pasibotasunarekin alderatuta, deigarri egiten da ikustea Frantziako medikuen elkargo nagusia –*Ordre des Medecins*–, osasungintzako sindikatua eta beste elkarte garrantzizkoak bat egiten kutsaduraren kontrol zorotzagoa eskatzen duten aldarrikapenekin. 2007ko *Grenelle*ak zirela eta plazaratu zuten zazpi puntuko

agirian bigarrenean gobernuari eskatzen zitzaion errauste planta berriak eraikitzeako proiektuak geldiarazi zitzala. Errausketarentzako moratoria alegia.

“Ekologia eta osasuna lotuta daude, kantzerra eta ingurumena ere bai” idatzi eta esan du mila bider Belpommek. Tabakoaren kasuan, kostatu zen ikerlariek aspal-di deskubritutako lotura hori legetara eramatea. Orain, ordea, kontua da tabako kontsumoa jaisten hasita ere biriketako minbiziak ugaltzen segitzen duela, arnasten dugun airean kutsagarriak badiren seinale.

Bigarren Mundu Gerratik klase guztietako hondakin kimikoak sartzten zaizkio herritarrari azaletik bezala arnasbideetatik eta elikadura-

rekin ahotik. Belpommek Baionan, nekazaritzaz arduratutako entzule askoren aurrean egonez, bereziki azpimarratu zituen laborantzan erabiltzen diren nitratoak eta pestizidak, ahaztu gabe janari elaboratuetan sartzen diren kontserbatzaileak, koloreztagarriak eta abar. Baina ez zituen ahaztu kosmetikoetan diren gai kimiko arriskutsuak, etxeetako tresnetan dauzkagunak, eta industrien airearaten dituzten dioxinak.

Dioxinak aipatuta, errauste planten inguruan dagoen polemika ez zaio arrotza ARTACEko jendeari. Errauskailu berriek, zaharragoek ez bezala, filtro onak dituztela eta seguruak direla dioten politiko eta teknikoen kontra, Belpomme bera militante bero bihurtzen da.

“Gaur badakigu –dio *Ces maladies...* liburuan– gai kantzerrerragileek ez dosi handietan baizik eta luzaz errepikatutako dosi txikietan egiten dutela kaltea. (...) Uretan, janarietan edo airean egon daitezkeen pozoiei nazioarteko arauk ezarri mugak ez dira kaltea eragozteko nahikoa, azken finean dosiaren errepikapena eta horiek denboran zehar duten iraupena direlako garrantzitsuak, azken finean organismoak orotara pilatu duen dosia”.

2009an Frantziaren itsasoz haraindiko lurraldea den Maurizio uhartean errauste planta eraiki nahi dutela eta, iritzia eskatu zioten Belpommeri. Honek “Gutun irekia mauriziotarrei” agirian sutsu animatu zituen ez etsitzera: “Kosta ahala kosta lortu behar da errauskailua gelditzea, jakinik gainera alternatibak badirela (...) Maurizioar guztiek mobilizatu behar dute”. ■





**ZINKUNEGI  
OPTIKA**  
Hernani, 23 · 20004 Donostia  
T. 943 420 624  
[info@zinkunegioptika.com](mailto:info@zinkunegioptika.com)  
[www.zinkunegioptika.com](http://www.zinkunegioptika.com)

**zuri begira**

## Bidea ibiliaren ibiliaz eginez

**D**enbora dezente pasatu dugu ezkerreko independentistok errotonda berean bueltaka, eta ez beti norabide berean, handik ateratzeko bide-orri eraginkorra aurkitzeko minetan. Azken urteak gertaeretan eman dituenak gogoan, behingoz asmatu egin dela pentsatu genezake, jakinda ere asmatzea ez dela kasualitatearen ondorio, denboraz landutako kausalitatearena baizik. Izan ere, norabide bereko urratsez betetako urtea izan da hau. Aspaldiko urte politikorik mugituena seguruenik, azkeneko argazkian izan behar duten guztiak mugitu ez badira ere, momentuz.

Ezker abertzaleak abiapuntuan aldebakartasuna ipini izanak egin du orain arteko helbidea posible, Bruselakoa izan, Euskaldunakoa izan, su-etenekoa izan, Gernikakoa izan, mobilizazio jendetsuak izan... aldebakarreko apustuak duen handitasunaren isla, dudarik gabe. Izan ere, kontrarioari aurrebaldintzarik eskatzen ez diozunez kontrarioak zure jokoz bazter sentitzen du bere burua; hortaz, sarekadak antolatzen erakutsi behar du jokoa arautzailea bera dela eta, bide batez, aldebakarrekoan abiatzeko atrebentzia izan dutenei zalantzaz josi bidea, bihar-etziko badaezpadakoan.

Baldintzen ikuspegi honetatik, ulergaitz egiten zait erakunde armatuak *Gara* egunkariari eskainitako elkarriketan Bruselako Adierazpenak eskatu su-etenaz zioena, hots, prestutasuna izan baduela "urrunago joateko ere, horretarako baldintzak sortzen badira". Aldebakarreko apustuak orain arte sortutako baldintzak baliatu behar ditu berriak sortzeko, kontrarioa mugitzeko besteko baldintzak sortu ere, baina ezin geratu kontrarioaren aldetik etorri litezkeen baldintzen zain, bestela ez zen aldebakarreko apustua izango. Eta haxe *mandatua*.

Alde bakarrekoa abiapuntu, alde biko hitzarmen estrategikoak helbide, azkenean alde anitzekoa izan behar duen akordioa helburu. Paradoxa hartu badaitke ere, orain urtebete LABeko egoitzan izandako atxilotetek eman zioten bultzada operazio horrekin saihestu nahi zuten



DANI BLANCO

gogoeta sakonari. Baina burutu egin zen eta ebatzi ere, politika ulertu eta egiteko modua eraberritu beharra zegoela, indarrak beste era batez erabilita, iraganetik zetorren inertzia aurrera begirako estrategia eraginkor bihurtuz. Erabaki hartatik eratorria da gerokoa.

Enfrentamendutik konfrontazio politikora igarotzeak baldintza berriak eskatzen ditu, lehendik sortuen osagarri. Hortaz, ezker abertzaleak legezkota marka politikoa behar du, debate hartatik atera legetxe. Legezko marka besteen zelai berean aritzeko politikan, politika egiteari inoiz utzi ez badio ere; legezkota marka bihar-etziko alde anitzeko mahaiaren bueltan egoteko, eta burujabetasuna ez ezik ezkerreko gizarte eredu baten aldeko




Ulergaitz egiten zait erakunde armatuak *Gara* egunkariari eskainitako elkarriketan Bruselako Adierazpenak eskatu su-etenaz zioena, hots, prestutasuna izan baduela 'urrunago joateko ere, horretarako baldintzak sortzen badira'



apustua gizenduz joateko, finean. Eta hona beste paradoxa bat, formazio politikoko berri bat legeztatzeko atxilotetak, eta tartean tortura, helburu politikoz erabiltzen dituen sistema politiko baten leihatilatik pasatu beharra! Urrats hori oztopatzeraz lihoazke atxilotetok, ezker abertzalearen esparru batzuetan zalanztzak areagotzeraz, zuzenbidezkoa omen den Estatuarentzat ez baita gauza bera konfrontazio politikorako urratsa sektore oso batek edo parte batek ematea. Baina urratsa eman egingo dela dago esana, eta indar-metaketari eutsi ere. Hortaz, Altsasuko Mahaiko bultzatzaileek orain gutxi herri berean egindako agerraldian biolentziaz esanak bidea ematen du. ■

# ASTE HONETAKO zozketak



## Saiaz Getaria hotela

Asteburu pasa  
bi lagunentzat

Roke Deuna, 25  
Getaria GIPUZKOA

[www.siaizgetaria.com](http://www.siaizgetaria.com)

1



## Hor hago Kevin?

Kevin Heredia

5 liburu opari

Tejeria, 53  
Donostia GIPUZKOA

[www.meettok.com](http://www.meettok.com)

2



## Esne beltza

noa

**Kaotiko**

Reacciona!!!

**Ze esatek**

3 CD sorta opari

[www.baga-biga.com](http://www.baga-biga.com)

3




## Inguru Abentura

3 bikoteentzat  
espeologia saioa (2. maila)

San Juan kalea, 18  
Albeniz ARABA

[www.inguruabentura.com](http://www.inguruabentura.com)

4



## Ziztadak

2 mahai jolas opari

[www.argia.com/denda](http://www.argia.com/denda)

5

## AZKEN IRABAZLEAK (2250. Argia)

### UROLA

• Begoña Basterretxea Moreno (Izarra, Urkabustaiz)

### ATXASPI

• Miren Itziar Enbil (Deba)

### AQUARIUM

• Olatz Mendizabal Sarasua (Donostia)  
• Ramon Iriondo Bergara (Hernani)  
• Josemari Mendizabal Sarasua (Donostia)  
• Jaione Iurramendi Mendizabal (Ikaztegieta)

### BIDE ERTZEAN

• Lourdes Iruretagoiena Laka (Zarautz)  
• Julen Gorostizaga Elu (Arrankudiaga)  
• Maritxu Etxezabal Larrañaga (Azpeitia)  
• Manuel Arregi Urrutia (Zestoa)  
• Jose Maria Betelu Azurmendi (Elgoibar)

### ILLIMANI

• Maria Dolores Uriarte Ballarena (Barakaldo)  
• Bolintxu aek Euskaltegia (Basauri)

\* Bisitaldietarako epea: Bi hilabete

## PARTE HARTZEKO

Astelehenetik ostiralera 08:00-15:30

Tel: 943 36 72 85 • [gunea@argia.com](mailto:gunea@argia.com) • [www.argia.com/gunea](http://www.argia.com/gunea)

# zu zara berria

euskarazko komunikabideak,  
elkarlanean, berrituta, mugimenduan



Gure produktuak gertutik ezagutu  
nahi badituzu edo harpidetu nahi baduzu:

[www.zuzaraberria.info](http://www.zuzaraberria.info)

[berriketan.info](http://berriketan.info)

